



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 21a

55. ZK.

### A U R K I B I D E A

F S A I L A:

**Galderak:**

- Galdera, Mendigorrian zahar-etxe bat eraikitzeko obren amaierari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, N-232 errepidea Gallur eta Mallén bitartean bikoizteko obrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, eskola-curriculumetik erlijioaren ikasgaia kentzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuaren erabilera dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, osasun zerbitzuak eta euskararen erabilera direla-eta Nafarroako zenbait udalek Europako Parlamentuari eginiko eskariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, “Nafarroako Foru Administrazio Publikoko energia-kudeaketarako Plana” eta “Nafarroako 2025 energia-plana” deitutako kontusaileri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak Unibertsitate Klinikara kanporatzeari buruzko azterlanaren gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, 2015-2016 ikasturtearen hasieratik 2015eko abenduaren 31ra arte Nafarroako ikastetxeetan “berandu sartzea” denaren bitartez hasi diren ikasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, amaitu gabe dauden gaiak lantzeko Hezkuntza Ministerioarekin izandako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun garraioaren esleipena duen enpresari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, programa-akordioan jasotako enplegu eskaintza publikoa dela-eta Osasun Departamentuak daukan aurreikuspen eta epeei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan dauden ikasle etorkinen kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “Andrés Muñoz Garde” Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitzeko aurreproiektua edo proiektua egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, Haur Hezkuntzako sare bakar eta doakoa planifikatze aldera hezkuntza-eragileekin Gobernuak izandako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, “itzaleko bidesari-sistema” izenekoaren bidez finantzatutako azpiegituren kostuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko hitzarmenak bere sinatetik sortu dituen lanpostuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, azken lau urteotako I+G+Bko hobariei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrendari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa, Nafarroako jarduera lirikoa Nafarroako Fundazio Lirikoaren inguruan metatzeko aukera dela-eta. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, NA-6900 errepideak Cascante-Fitero tartean duen egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, eskola-mapari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- Galdera, Zika birusari buruzko jarduketa-protokoloa dela-eta. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, jakiteko ea zuzemenik egin den Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aitzinean, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistra graduko ikasleek ingeleseko C1 edo B2 maila frogatuz titulua lor dezaten. Foru Diputazioaren erantzuna (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Baxilergoa eginen duten Ingelesez Ikasteko Programako ikasleei jarraipen-aukera emate aldera. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Done Jakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gaindiko Proiektu Sektorialaren bidez antolatutako hirigintza-eremuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- Galdera, Lehendakariaren aurkako ustezko mehatxu eta irain delitu batengatik Nafarroako Gobernuak Jaime del Burgoren aurka aurkeztutako kereilari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboaren ebazpenak argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- Galdera, jakitekoa Nafarroan bizi diren zenbat emakumek pairatu duten genitalen ebaketa eta zenbat neskatok daukaten arrisku hori. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).
- Galdera, Noingo San Miguel IPko D ereduko irakasle eta guraso batzuek bereizi eta eskola berri bat sortzeko eginiko eskariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- Galdera, lankidetzarako esparru-hitzarmen bat betetze aldera Banco de Santander SArekin sinatutako lankidetz hitzarmen berriazkoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Mendigorrian zahar-etxe bat eraikitzeko obren amaierari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Mendigorrian zahar-etxe bat eraikitzeko obren amaierari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko abenduaren 28ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako Maiorga Ramírez Erro jaunak galdera egin du Mendigorrian zahar-etxea eraikitzeko obren amaierari buruz (9-15/PES-00144). Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako lehendakariordearen erantzuna:

Mendigorrian zahar-etxea eraikitzea Sagrada Familia fundazioaren ekimena izan zen. fundazio hori 1987an eratu zen 1908an jasotako jaraunpen bat kudeatzeko. Haren bidez, izan ere, San Vicente Paulen karitatearen alaben ondasun batzuk uzten ziren adineko pertsona behartsuei laguntzeko toki bat eraikitzeko. 1970era arte, erlijiosoek bete zuten eginkizun hori, baina 1970ean herritik joan ziren. 1987tik herriak, Sagrada Familia fundazioa sortuz, ahaleginak egin ditu jaraunpenaren xedea betetzeko, aurrera ateratzerik izan ez duten zenbait proiekturen bitartez.

Eskubide Sozialetako Departamentuko Fundazioen Babesletzaren Atalean jasotakoaren arabera, 1999an, 2001ean, 2002an, 2005ean eta 2006an "Sagrada Familia" fundazioak baimena eskatu zuen bere ondareari atxikitako ondasun batzuk besterendu eta permutatzeko, zahar-etxe bat eraikitzei ekiteko. Eskubide horiei baiezkota eman zitzaion, salbu eta 2006koari; hain zuzen

ere, ezezkoa eman zitzaion proiektuaren bideragarritasuna bermatuta ez zegoelako. Aipatu beharra dago espediente horien dokumentazioan Plangintza eta Azpiegituren Zerbitzuaren txosten bat badagoela, non ohartarazten baita egoitzatokiaren estaldura handia dela eta ez dagoela toki berriak sortzeko beharrik.

2006an, fundazioak eskatuta, Nafarroako Personon Autonomiarako Agentziako Obra eta Hornidura Atalak aldeko txostena eman zuen, zahar-etxerako proiektuak gizarte zerbitzuen arloko baimen eta arau-hausteei buruzko araudia betetzeari dagokionez (209/1991 Foru Dekretua). Txosten hori beharrezkoa zen obretarako kasuko udal lizentzia lortu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, eraikin hori ez zen sartu Departamentuaren inongo proiektutan, eta haren laguntzarik edo/eta diru-laguntzarik ere ez zuen jaso. 2007an, fundazioaren eskaera bat badago obretarako eta inbertsioetarako deialdian diru-laguntza lortzeko, zahar-etxean integratuta egonen zen eguneko zentro bat eraikitze aldera, baina ezezkoa eman zitzaion.

Une hauetan, obra amaitu gabe dago. Ez Udalak, ez Sagrada Familia fundazioak ez dute zenbatetsi egiteko gelditu diren obren kostua.

Udaleko kideekin eta fundazioko patronatuko kideekin 2016ko urtarrilaren 7an egindako bilaren ondoren, erabaki zen kostua kalkulatzeko eta obra amaitzeko balizko finantzabideak aztertzea, zeren eta aurtengo ez baitago gizarte zerbitzuen arloko obretarako eta inbertsioetarako kontusailik. Behin hori baloratuta, kudeaketa-ereduei buruz hitz egin ahalko da.

Garrantzitsua da kontua hartzea ezen Mendigorria sartuta dagoen gizarte zerbitzuen eremua (Lizarrakoa) Foru Komunitatean egoitza-toki gehien duena dela (% 5,70), eta egoitza-toki publikoen estalduraren adierazlea % 2,84koa dela

(lurralde osoko altuena, halaber). Egia da, bestalde, Garesko oinarrizko eskualdeak estaldura txikiagoa duela (% 2,64), eta egoitza-toki publikorik batere ez duela. Iruñetik hurbil egotea kontuan hartu beharreko elementua da, estaldura-eremu zabala izanen luketen egoitza-tokiak sortzeko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 14an

Eskubide Sozialetako lehendakariordea: Miguel Laparra Navarro

---

## **Galdera, N-232 errepidea Gallur eta Mallén bitartean bikoizteko obrei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, N-232 errepidea Gallur eta Mallén bitartean bikoizteko obrei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko abenduaren 28ko 47. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak galdera egin du (9-15/PES-00145). Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak, behean sinatzen duenak ematen dion erantzuna:

Egia da gaur den egunean N-232 errepidea bikoizteko lizitazio-prozesuan dagoela Sustapen Ministerioa, Gallur eta Mallén arteko tarteari dagokionez.

Proiektuak (Gallur-Mallén proiektuaren planta orokorraren plano gehitu dugu) neurri oso txikia eragiten du Nafarroan (ikus erantsi den beste plano, non Mallén-Ekialdetik Nafarroako mugara doan proiektu-zatiaren planta ageri baita), zeren eta bide hori Nafarroan jada bikoiztuta baitzegoen eta Cortesko lotunea ere bai baitu, bai eta Nafarroako lurralde osoko plataforma bikoiztua ere. Hori dela eta, Ministerioak egin beharreko proiektu

tuari buruz ari garela, Nafarroako lurraldean soilik aurreikusten dira Cortesko sasi-lotura osatzeko behar diren obrak, Cortesetik Mallengo lotunera doan lotura barne hartuz (59. ardatza), aurrez Sustapen Ministerioaren menpekota den Aragoiko Errepideen Plangintza, Proiektu eta Obretarako Alorrarekin modu koordinatuan aurreikusitakoari jarraituta.

Horrenbestez, A-68 autobideko Nafarroako enborreko azken tartea seinalatzen horizontal eta bertikaleko doikuntza batzuk baizik ez ditu beharko (gaur egun, autobidearen amaiera eta Aragoi egungo N-232 errepidean, zirkulazioko bi norabideetakoan, sartzea baizik ez dago seinalatuta), autobideak Aragoiko tartean jarraitzen duela seinalatzeko, horixe baita bikoiztuko dena.

Logikoa denez, Sustapen Ministerioarekin izaten ari garen koordinazioko bilera arruntetan jarduketara horri buruz hitz egiteko asmoa daukagu, halako moduz non Nafarroan obra egiteko unea iristen denean (ez dirudi, dena den, epe laburrean izanen denik, zeren eta exekuzio osorako 64 hilabete aurreikusi baitira) azpiegitura berria amaitzeko eta zerbitzuan jartzeko prozedura zehatza ezarrita egonen baita.

Azaldutakoa dela eta, ez dugu beharrezkotzat jotzen inongo aurrekontu-aurreikuspenik egitea, ez eta, berehala edo epe laburrean egiteko inongo jarduketarik ere.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 20an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

## **Galdera, eskola-curriculumetik erlijioaren ikasgaia kentzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eskola-curriculumetik erlijioaren ikasgaia kentzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko abenduaren 30eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-15/PES-00146 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza kontseilariaren informazioa:

Eskatutako gaiari dagokionez, jakin nahi baita nola erretiratu behar duen kontseilariak erlijio ikasgaiaren eskola-curriculum, esan beharra dago Hezkuntza Departamentuak zorrotz errespetatuko duela galderaren xede den gaiari buruzko legedi indarduna.

Iruñean, 2016eko urtarrilaren 21ean.

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuaren erabilera dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuaren erabilera dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko abenduaren 30eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 15ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-15/PES-00147 zenbakiko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Lehenengo galderaren bidez, jakin nahi da Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko

dituen Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuak erabiltzen diren ikastetxeen kasuan. Bada, erantzun beharra dago horrelako inguruabarrik ez dagoela, eta horri buruzko zalantzarik izatera, Hezkuntza Departamentuko zerbitzu eskudunek testuliburu guztiak sakon aztertuko lituzkeela, hain zuzen ere Nafarroaren errealitate instituzionalak zorrotz errespeta dezaten.

Bigarren galderaren bidez jakin nahi da ea testuliburuaren doakotasun-programan onartu egingen ote den ikastetxeek erabiltzea Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuak. Horri buruz, esan beharra dago Hezkuntza Departamentuak sekula ez duela onartuko inongo testuliburu —eta, horrenbestez, doakotasun-programakoek ere ez— Nafarroaren errealitate instituzionala ez errespetatzea.

Iruñean, 2016eko urtarrilaren 15ean

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, osasun zerbitzuak eta euskararen erabilera direla-eta Nafarroako zenbait udalek Europako Parlamentuari eginiko eskariari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Dabid Anaut Peña jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, osasun zerbitzuak eta euskararen erabilera direla-eta Nafarroako zenbait udalek Europako Parlamentuari eginiko eskariari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2015eko abenduaren 30eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 25ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak idatzizko galdera egin du Nafarroako herritarren talde batek Europako Parlamentuari egindako eskari bati buruz (9-15/PES-00148). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Aipatutako galdera dela eta, informazioa bildu dugu 0541/2014 eskariari buruz, zeina pertsona-talde batek aurkeztu baitu Europako Parlamentuko Eskarietako Batzordean. Hartan azaltzen dute Baztan, Urdazubi eta Zugarramurdiko euskaldunek bazterkeria jasotzen dutela osasun laguntzako zerbitzuetan ezin dutelako beren hizkuntzan hitz egin.

Egungo exekutiboak ez daki aurreko Gobernuak horri buruz zer edo zer erantzun zuen. Hala eta guztiz ere, aurreratu dezaket Euskarabidean urrats batzuk egiten ari direla egoera hori hobetzeko, osasun laguntzako zerbitzu horien erabil-tzaileengan eragina duen egoera hori hobetzeko ez ezik, Foru Administrazioak, oro har, ematen dituen zerbitzuei begira ere.

Honako hau da urrats horien helburua:

– Programa-akordioak Hizkuntza Politikari buruzko ataleko 1. puntuan jasotakoa betetzea: “Arazko esparru egoki bat garatzea, herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko.”

– Erregioetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Itunaren gomendioak Espainian aplikatzeari buruzko gomendioak betetzea. Gomendio

horiek Ministroen Batzordeak onetsi zituen 2016ko urtarrilaren 20an, eta 4. puntuan Espainiako agintariei gomendatzen zaie jarrai dezatela neurriak ezartzen zerbitzu publikoetan, bereziki osasun zerbitzuetan, hizkuntza koofizialen presentzia bermatzeko.

Helburu hori betetzeko, araudi indarduna azterten hasi da, zeren eta aldatu behar baita zerbitzu publikoetan Nafarroako bi hizkuntzen presentzia bermatzeko:

– Nafarroako administrazio publikoetan euskararen erabilera arautzeari buruzko otsailaren 10eko 29/2003 Foru Dekretua.

– Uztailaren 30eko 203/2001 Foru Dekretua, ezartzen duena Nafarroako Foru Komunitateko administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoko zein lanpostu –Hezkuntza eta Kultura Departamentuko irakaskuntzako langileak salbu– eskuratzeko den beharrezkoa euskara jakitea –jakintza-maila zehaztuta– edo euskara merezimendu gisa hartzea, beste batzuen artean.

– Uztailaren 27ko 100/2005 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa onesten duena.

– Ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako eta haren erakunde autonomoetako plantilla organikoan euskaraz jakitearen trataera arautu zuena.

Behin araudi hori aztertuta, proposamen bat egiten da, eta bera Nafarroako Gobernuko departamentuekin eta inplikaturako eragile desberdinekin aztertuko da, gero onets dadin. Araudiaren egokitze horrek aintzat hartuko du Nafarroako egoera soziolinguistikoko desberdinen errealitatea, eta kontuan izanen ditu progresibotasun irizpideak, betiere errespetatuz zerbitzu publikoekin harremanak euskaraz izateko eskubideaz egiazki baliatu ahal izatea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean 2016ko urtarrilaren 26an.

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

## **Galdera, “Nafarroako Foru Administrazio Publikoko energia-kudeaketarako Plana” eta “Nafarroako 2025 energia-plana” deitutako kontusaileri buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Beltrán Villalba andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Nafarroako Foru Administrazio Publikoko energia-kudeaketarako Plana” eta “Nafarroako 2025 energia-plana” deitutako kontusaileri buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 14ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak 9-16/PES-00149 galdera egin du. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren informazioa:

1. “Nafarroako Foru Administrazio Publikoko energia-kudeaketarako Plana” izeneko kontusaileri buruzkoa. 500.000 euroko zuzkidura du.

Nafarroako 2020ra arteko III. Energia Planak, Nafarroako Gobernuak 2011ko maiatzean onetsi zuenak, jada aipatzen zuen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren beraren energia-kudeaketa hobetzeko beharra, progresiboki energia aurrezteko eta energia arloko efizientziarako ezartzen zituen, gastu arrunta murrizte aldera. Gainera, aipatzen zen komenigarria zela energia-zerbitzuak bultzatzea, horrek negozio-ereduari begira izan ditzakeen abantaila handiak direla eta. Helburu horiekin, 2015eko otsailaren 4an, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarako energia-kudeaketarako eta energia-zerbitzuak bultzatzeko programa onetsi zuen. Aipatu beharra dago Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak jada osasun etxeetarako energia aurrezteko eta energia-efizientziarako plan bat bazuela, Nafarroako Gobernuak 2014ko martxoan onetsia; bada plan hori oraingo programaren barruan sartu zen, eta azken hori da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio osoaren energia-kudeaketarako erreferentzia.

Hartara, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa aurrea hartzen zion 2012/27/CE Zuzen-

tarauko 5.7 artikulua ezartzen zuenari; izan ere, azken horrek erakunde publikoak bultzatzen zituen “energia-efizientziako plan bat hartzea, ingurumenari edo klimari buruzko plan orokorraren baten barruan ala hartatik kanpo, energia aurrezteko eta energia-efizientziarako helburu eta ekin-tza berariazkoak aurreikusiko dituen [...]”.

Programa horren helburu orokorra da Nafarroako energia-efizientzia handitzea, bai sektore publikoan, Nafarroako Foru Komunitatek Administrazioan energiaren kudeaketa hobetuz, bai sektore pribatuan, energia-zerbitzuak sustatuz, energiaren eta ekonomiaren arloetan aurrezkiak lortzeari begira.

Aurreikusitako jarduketa garrantzitsuena da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako kontsumo-zentro desberdinen energia-kudeaketaren lizitazio progresiboa, funtsean eraikinei dago-kienez. Lizitazioetako bakoitza Foru Administrazioaren eraikin baten edo batzuen kudeaketarako eginen litzateke. Energia kudeatzeko eta instalazioen mantentzerako lanak egiteaz gainera, lizitazioak behar diren inbertsioak proposatu behar dituzte eraikinetan energia-aurrezkiak lortzeko.

Kontratu horien alderdi nabarmenena da ezen energia zerbitzuetako enpresek (EZE) beren eskaintzan konpromisoa hartu beharko dutela abiapuntuko egoeraren aldean energia-aurrezkiak lortzeko, halako moduz non zerbitzuen ordainketa egindako eskaintzaren arabera aldizkako kuota bat izanen baita, eta urtero sari bat edo zigor bat kalkulatu baita helburuak lortu izanaren ala lortu ez izanaren arabera. Nolanahi ere, % 4ko urteko gutxieneko aurrezki bat lortu beharko da erreferentziako gastuarekin alderatuta, erregaiak gehi mantentze-lana erreferentzia hartuta.

Galderaren xede den kontusailak helburu du energia-kudeaketarako programa horretan aurreikusitako neurrien exekuzioa, bai eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan energia-zerbitzuak sustatzea ere, non energia-aurrezkiak eta aurrezki ekonomikoak sortu beharko baitira. Hori dela eta, aurreko urteetan hasitako lanei jarraipena emanez, lanean ari gara jada jardun beharreko eraikinak hautatzeko. Lehenetsiko da jarduketa hori egitea energia-kudeaketako lizitazioen bitartez eta deskribatu ditugun aurrezki-neurrietan zein

energia-efizientziako neurrietan inbertsioak egin ez.

2. "Nafarroako 2025 energia-plana Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan" izeneko kontusailari buruzkoa. 100.000 euroko zuzkidura du.

Nafarroako 2020ra arteko III. Energia Planak, Nafarroako Gobernuak 2011ko maiatzean onetsiak, helburu orokor gisa du energia-ekoizpen, -eraldaketa eta -kontsumoak Nafarroan iraunkortasunari egiten dioten ekarpena ahal den handiena izan dadin, alderdi sozial, ekonomiko eta ingurumenekoetan.

Gaur egun, Nafarroako Gobernuaren 2015-2019 legegintzaldirako programa-akordioari jarraituz, 2020rako Nafarroarako III. energia-plana berrikusteko prozesua hasi da, 2025eko horizontearekin, eta bertan energia berriztagarrien

eta energiaren erabilera arrazionalaren aldeko apustua egingen da.

Aurreikusita dago energia-plan berri horren prestaketa egitea modu parte-hartzailean eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioako teknikarien inplikazio oso handiarekin. Hala eta guztiz ere, kontuan hartuta ekin beharreko lanak, sektoreak eta gaiak zein diren, oso litekeena kanpoko laguntzetara jo behar izatea plana prestatzeko prozesuaren barruan zenbait lan garatzeko; horretarako, izan ere, aipatutako kontusailean jasotakoa aurreikusi da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko otsailaren 3an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak Unibertsitate Klinikara kanporatzeari buruzko azterlanaren gainekoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Couso Chamarro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak Unibertsitate Klinikara kanporatzeari buruzko azterlanaren gainekoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 14ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-15-PES-00150) Nafarroako Gobernuaren zerbitzuak (medikuntzako probak...) Unibertsitate Klinikara kanporatzeari buruzko azterlana dela eta, horixe gomendatzen baita 2014ko Nafarroako Kontu Orokorrei buruz Kontuen Ganberak egindako txostenean, ezagutze aldera zein den zerbitzu horien kostu pribatuen eta kostu publikoen arteko konparazioa. Hona Osasuneko kontseilariak eman beharreko informazioa:

Kontuen Ganberak, Nafarroako 2014ko Kontu Orokorrei buruzko txostenean, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko (CUN) kontratua aipatzen du, CUNeko, Nafarroako Unibertsitateko, Nafarroako Institutu Zientifiko eta Teknologikoko eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioko langile eta pentsiodunei eta haien senideei oinarritzko osasun laguntza eta laguntza espezializatua ematekoa. Kontratu hori 2012ko otsailaren 3an sinatu zen lau urteko epe baterako, 2015eko abenduaren 31 bitarteko hain zuzen.

Kontratu horri dagokionez, Kontuen Ganberak jotzen du bera sinatzeko erabili ziren irizpideak ez zirela erakusgarriak CUNekiko kontratuaren onuradunei osasun laguntza emateko prezio bat negoziatzeko erreferentziako kostu bat ezartzeari begira.

Honakoa da egiten duen gomendioa: "CUNekiko kontratuak 2015eko abenduaren 31ko mugaguna duenez, aztertzea ea zerbitzu hori kanpoko baliabideekin eman behar den –hala bada, konkurrentzia sustatu behar da– edo sare publikoak bere gain har dezakeen."

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak txosten bat egin du, non ondorioztatzen baita



kolektibo horrentzako osasun laguntza baliabide berekiekin eman daitekeela.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko otsailaren 2an.

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

---

## **Galdera, 2015-2016 ikasturtearen hasieratik 2015eko abenduaren 31ra arte Nafarroako ikastetxeetan “berandu sartzea” denaren bitartez hasi diren ikasleei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2015-2016 ikasturtearen hasieratik 2015eko abenduaren 31ra arte Nafarroako ikastetxeetan “berandu sartzea” denaren bitartez hasi diren ikasleei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 22ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00001 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Informazio hori gehitu dugun eranskinean ageri da.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an.

Hezkuntza Departamentuko Kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

## Galdera, amaitu gabe dauden gaiak lantzeko Hezkuntza Ministerioarekin izandako bilerei buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, amaitu gabe dauden gaiak lantzeko Hezkuntza Ministerioarekin izandako bilerei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 22ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00002 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Galderaren bidez jakin nahi da Hezkuntzako kontseilariak edo departamentuko arduradunek bilerarik izan ote duten edo helarazi ote dieten ekimenik Hezkuntza Ministerioko arduradunei, abenduaren 31ra bitartean. Erantsitako taulan ematen dugu eskatutako informazioa.

Iruñean, 2016ko otsailaren 3ean

Hezkuntza departamentuko kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

Zerbitzua	Data	Gaia	Edukia
Baliabide ekonomikoak	2015/09/29	Hezkuntza Batzorde Orokorraren Europako Gizarte Funtzari buruzko lantaldea.	Oinarrizko Lanbide Heziketako eragiketen justifikazio tekniko eta ekonomikoari buruzko jarraibideen eta DBHko 3. eta 4. mailetakko ibilbide berrien azalpena. Baliabide Ekonomikoen Zerbitzuko zuzendaria bertaratu zen.
Unibertsitateak eta Hezkuntza-teknologiak.	2015/09/15	Unibertsitate Politikari buruzko Konferentzia Orokorraren batzorde delegatuaren bilera.	Doktoretzako irakaskuntza ofizialak arautzen dituen urtarrilaren 28ko 99/2011 Errege Dekretuaren arabera lortutako Doktoretzako eta Doktoretza tituluaren gehigarri europarreko unibertsitate-tituluak emateari buruzko arauak ezartzen dituen Errege Dekretua. Unibertsitate eta Hezkuntza-teknologiaren Zerbitzuko zuzendaria bertaratu zen.
	2015/09/15	Egoeraren eta testuinguruaren azterketa eta I-G-i informazioa trukatzeko etorkizuneko urratsak egitea.	i+ G arloko kreditu publikoei buruzko estatistikaren betetzeari buruzko eztabaida eta hobekuntza-proposamenak. i+ G arloko informazio sistema hobetzeko Ministerioaren eta Fecyt delakoaren jarduketan aurkezpena: zehazki, I+ G arloari buruzko datuak bateratzeko plataforma automatizatua eta BIG DATA delakoan tratamendurako proiektua. Hiru lantalde sortzea. Ikerketarako eta Nazioartetarako Laguntzen bulegoburua bertaratu zen.
	2015/09/29	Hezkuntza Batzorde Orokorraren Europako Gizarte Funtzari buruzko lantaldea	Gai teknikoei buruzko bilera informatiboa. Eskola Informazioaren Kodeketarako bulegoburua bertaratu zen.
	2015/10/01	SIU unibertsitate-informaziorako sistema integratuko Estatistika Batzordearen bilera.	Goi Mailako Irakaskuntzaren Bulegoko burua bertaratu zen.
	2015/11/26	CNEAren (Ikerketa Jardueraren Ebaluaziorako Batzorde Nazionala) osoko bilkurarako deialdia.	2015eko deialdirako ikerketa jarduera ebaluatzeko irizpideei buruzko informazioa eta irizpide horien ezarpena; egiteko dauden ebaluazioak; epai judizialen exekuzioa eta ebaluazio sisteman kontratupeko irakasle doktoreak sartzeari buruzko informazioa. Unibertsitate eta Hezkuntza-teknologiaren Zerbitzuko zuzendaria bertaratu zen.

	2015/12/30	CNEAlren (Ikerketa Jardueraren Ebaluaziorako Batzorde Nazionala) osoko bilkurarako deialdia.	Aholku batzordeetako lehendakarien eta batzordekide izanen diren espezialisten proposamena eta izendapena. Unibertsitateen eta Hezkuntza-teknologiaren zuzendariaren botoa eta bertaratzeko eskuordetza CNEAko osoko bilkurako koordinatzaile Demetrio Castro jaunari, eta Unibertsitate Politikaren Zuzendaritza Nagusiko kide aholkularia Enrique Collell jaunari hori jakinaraztea.
Giza baliabideak	2015/10/21	Autonomia erkidegoen arteko lekualdatze lehiaketa. Ebazpen informatikoa.	Bilera Ministerioarekin eta autonomia erkidegoen arteko lekualdatze lehiaketa DPZren bitartez ebazten duten autonomia erkidegoekin, Alcalá 34an. Nafarroaren aldetik honakoak bertaratu ziren: Giza Baliabideen zerbitziburua, deialdiaren arduraduna, eta Plangintzako zerbitziburua, informatikarien lantaldearen arduradun gisa. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren posta elektronikoko bidezko erantzuna, maisu-maistren eta gainerako kidegoen lekualdatze-lehiaketak ebazteko aplikatzeak diren garbiketa-arauak eranstekoa.
Lanbide Heziketa	2015/08/11	Hezkuntzako Konferentziako Hezkuntza Batzorde Orokorraren bilera.	Curriculum materiala erosteko laguntzei buruzko alderdien gaineko informazioa; irakaskuntza-eginkizunaren liburu zuriaren proposamena; eskola-bizikidetasuneko plana; lanbide heziketaren enplegarritasunaren mapa; ikastetxeen konektibitate plana eta hezkuntza sistemaren kanpo ebaluazioei buruzko errege dekretuaren proiektua. Berrikuntzaren, Enpresaren eta Lanbide Heziketa Nazioartekotzearen atalburua bertaratu zen.
	2015/09/29	Hezkuntza Batzorde Orokorraren Europako Gizarte Funtzari buruzko lantaldea.	Oinarrizko Lanbide Heziketako eragiketen justifikazio tekniko eta ekonomikoari buruzko jarraibideen eta DBHko 3. eta 4. mailetakoko ibilbide berrien azalpena. Lanbide Heziketaren zerbitziburua bertaratu zen.
	2015/11/03	Lanbide Heziketarako Batzorde Teknikoaren lanbide-prestakuntza dualaren lantaldea.	Lanbide heziketa duala erkidegoetan garatzeari buruzko informazioa eta garapenerako baterako proposamenak egitea. Nafarroako lanbide heziketa dualari buruzko datu estatistikoaren ekarpena. Lanbide Heziketaren zerbitziburua lehenengo bilerara joan zen eta Berrikuntzaren, Enpresaren eta Lanbide Heziketa Nazioartekotzearen atalburua, berri, bigarrenera.
	2015/11/24	Lanbide Heziketarako Batzorde Teknikoaren lanbide-prestakuntza dualaren lantaldea.	Lanbide heziketa duala erkidegoetan garatzeari buruzko informazioa eta garapenerako baterako proposamenak egitea. Nafarroako lanbide heziketa dualari buruzko datu estatistikoaren ekarpena. Lanbide Heziketaren zerbitziburua lehenengo bilerara joan zen eta Berrikuntzaren, Enpresaren eta Lanbide Heziketa Nazioartekotzearen atalburua, berri, bigarrenera.
	2015/11/10	Lanbide Heziketarako Batzorde Teknikoaren bilera.	Indarra hartuko duten alderdi normatibo batzuen garapenera buruzko informazioa; zikloetara sartzeko ikastaroak eta probak; tituluak lortzeko probak; ikasgai boluntarioak eta titulazio bikoitza. Erkidegoek erabaki zuten Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioari eskatzea lanbide heziketako heziketa-zikloetarako sarbidea arautu dezan. Lanbide Heziketaren zerbitziburua bertaratu zen. Lanbide Heziketarako Batzorde Teknikoaren lankidetzarako plataforma birtualaren bitarteko komunikazio iraunkorra. Abenduaren 31n, Lanbide Heziketarako Batzorde Teknikoak egindako eskariaren erantzunik ez da jaso.
Ebaluazioa, kalitatea, prestakuntza eta bizikidetasuna.	2015/10/20	Lantaldea eta hezkuntzaren arloko ebaluazioa eta informazioa.	Bilera Hezkuntza eta Zientzia Ministerioako Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionalan. TIMSS 2015, PIRLS 2016 eta PISA 2015 azterlanei buruzko Report UE 2015, EaG 2015 monitore-txostenen egungo egoerari buruzko informazioa. Pisa 2018 eta PISA for Schools ebaluaziorako nazioarteko programei buruzko informazioa. 2015eko lehen hezkuntzako 3. mailako, 2016ko lehen hezkuntzako 3. mailako eta 2016ko lehen hezkuntzako amaierako ebaluazioko nazio-ebaluaziora buruzko informazioa. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuko ikuskari bat eta Ebaluazio eta Kalitateko atalburua bertaratu ziren.

## **Galdera, Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun garraioaren esleipena duen enpresari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun garraioaren esleipena duen enpresari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 22ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00003), non informazioa eskatzen baitu Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun-erloto garraioaren kontratuaren gaineko zenbait alderdiri buruz. Kontratu hori "Servicios Socio Sanitarios Generales SL" (SGG) enpresari esleitu zaio. Hona Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun-erloto garraioaren enpresa esleipen-hartzaileak betetzen al du zerbitzua emateko laguntza-kontratuaren administrazio-klausula partikularren orria?

Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun-erloto garraioaren zerbitzuaren enpresa esleipen-hartzaileak betetzen al ditu lehiaketara aurkezteko baliatu zituen hobekuntza-eskaintzak?

Bi kasu horietan, zeintzuk dira Nafarroako Gobernuaren arazoak eta jarduketak?

Lehenago, bere testuinguruan jarri beharra dago zerbitzu hori nola ematen hasi den.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen 2015eko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez SSG enpresari esleitu zitzaion Tuterako eta Zangozako eskualdeetako osasun-garraioa egitea. Urriaren 1ean hasi behar izan zen kontratua, zeren eta lehenago Tuteran eta Zangozan zerbitzua ematen zuten enpresek adierazi bai-

tzuten ez zutela zerbitzu hori ematen jarraituko egun horretatik aurrera.

Horrek eragin zuen esleipen-hartzaile berria, SGG enpresa, zerbitzua ematen garaia baino lehen hasi behar izatea, zeren eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak horren premia zegoela jakinarazi baitzion.

Horri dagokionez, ez da ahaztu behar funtsezko zerbitzu bati buruz ari garela, hain zuzen ere eteterik ez dagoen zerbitzu bat: haren erantzukizuna Administrazioarena da eta onuradunak, berriz, haren premia duten gaixoak.

Zerbitzua ematen hasi zenetik, bi eskualdeetan zerbitzuaren kalitateari buruzko jarraipen etengabea egin da, eta egiaztatu da esleipen-hartzaileak administrazio klausula partikularren orria betetzen duela, kalitatea ona dela eta hobekuntza etengabea gertatzen ari dela, zeren eta hasiera konplikatuagoa izan baitzen, esan bezala enpresa garaia baino lehen hasi behar izan baitzuen lanean, eta gorabeherak zuzentzen direla.

Gorabehera horiek puntualak izaten dira, eta ez dute arazorik ekartzen gaixoek jasoko duten zerbitzuari begira: dago bi anbulantzia zaharrak direla –araudia betetzen duten arren, ez dira enpresaren eskaintza teknikoan jasotakoa bezain berriak; langile-kopurua eta ibilgailu batzuen ziurtagiria.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak errekerimendu formala egin dio enpresa esleipen-hartzaileari gorabehera horiei guztiei konponbidea eman diezaien, eta jakin badakigu konponbidea ematen ari zaiela eta laster konponduta egonen direla.

Gainera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren baldintza-orrietan ezarritakoari jarraituz, ez da ordaintzen ari fakturazioaren % 95 baino gehiago.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko otsailaren 10ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## **Galdera, programa-akordioan jasotako enplegu eskaintza publikoa dela-eta Osasun Departamentuak dauzkan aurreikuspen eta epeei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Begoña Ganuza Bernaola andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, programa-akordioan jasotako enplegu eskaintza publikoa dela-eta Osasun Departamentuak dauzkan aurreikuspen eta epeei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 22ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeko Begoña Ganuza Bernaola andreak idatziz erantzuteko 9-16-PES-00004 galdera aurkeztu du. Haren bidez jakin nahi du Osasun Departamen-

tuak zer aurreikuspen eta epe darabilen programa-akordioan jasotzen den "berehalako" lan-eskaintza publikoa dela-eta, zeina programa-akordioan jasota baitago. Hauxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Osasun Departamentuak aurreikusita dauka enplegu eskaintza publiko bat egitea, osasuneko lanbide-kategorietako langileengan ahal den epe laburrean eragina izanen duena.

Deituko diren lanpostuen kopura arlo honetako araudiak bideratzen digun handiena izanen da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## **Galdera, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan dauden ikasle etorkinen kopuruari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan dauden ikasle etorkinen kopuruari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 22ko 8. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-16/PES-00005 zenbakiko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Informazio hori gehitu dugun eranskinean ageri da.

Iruñean, 2016ko otsailaren 10ean.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

## **Galdera, “Andrés Muñoz Garde” Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitze aurreproiektua edo proiektua egiteari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Andrés Muñoz Garde” Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitze aurreproiektua edo proiektua egiteari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 28ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-16/PES-00006 zenbakiko informazio-

eskaera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Galdegileak jakin nahi du Hezkuntza Departamentuak asmorik ote duen “Andrés Muñoz Garde” Hezkuntza Bereziko ikastetxe berri bat eraikitze aurreproiektua edo proiektua egiteko. Horri buruz, esan beharra daukagu Hezkuntza Departamentua Iruñerrian hezkuntza bereziko ikastetxe berri baterako beharrezanean buruzko programa lantzen ari dela, hain zuzen ere egungoa osatu edo ordeztu duena.

Iruñean, 2016ko otsailaren 16an.

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Haur Hezkuntzako sare bakar eta doakoa planifikatze aldera hezkuntza-eragileekin Gobernuak izandako bilerekin buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Haur Hezkuntzako sare bakar eta doakoa planifikatze aldera hezkuntza-eragileekin Gobernuak izandako bilerekin buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 28ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-16/PES-00007 parlamentu-galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Departamentu honek lehentasunezko eta kontusailarekin bateragarritzat jotzen dituen ekintzak aztertu eta aurrera eramaten ditu, haur esko-

laren doakotasunera bideratutako sare bakarraren plangintza eta diseinua egiterakoan, egoera analizatuz eta aztertuz Nafarroan lehen zikloko haur eskolen kudeaketa eta finantzaketa partekatzen ditueneko entitateekin.

Lehenengo analisi horretatik, lehentasunezko ildo gisa, planteatu da eskola publikoak sortzea; hezkuntza premia bereziak izan eta bazterketa-arriskuan dauden haurrentzako arreta eta irisgarritasuna; landa eremuaren berariazotasunari erantzun egokia ematea; kalitatezko eskolarako sarbidea bermatzen duten kudeaketa-ereduak aztertzea; eta haur eskolara sartzen diren familientzat zenbatetsitako tarifen eta errenta-tariteen berrikuspena.

Hobekuntza ildo hauen inguruko ekintzak, gaur egun lantzen ari direnak, honako hauek dira:

Hezkuntza premia bereziak izan eta bazterketa-arriskuan dauden 0 eta 3 urte arteko haurrentzako doako sarbidea. Familiei 2016-2017 ikasturtean aplikatzekoak zaizkien tarifei buruzko araudian ezartzen da kuota-salbuespena egonen

dela hezkuntza premia bereziak dituzten neska-mutilen kasuan, familiak gizarte bazterketako arriskuan baldin badaude.

Hiru udalenak (Atarrabia, Sesma eta Iruña) diren bederatzi eskola eraldatzeko prozesua, Nafarroako Foru Komunitatean haur hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua aldatzen duen uztailaren 25eko 72/2012 Foru Dekretuak ezartzen dituen baldintza fisikoak bete-ez eta diru-laguntza-bidezko finantzaketa-sistemara biltzen direnak, hain zuzen ere aldi baterako proposatu zen sistemara, zeina luzatzen joan baita azken lau urteetan eskola bakarra ere sortu gabe.

Departamentu hau lanean ari da udal horiekin, beraien eskolak kalitatea bermatzen dituzten baldintzak bete ditzaten, hain zuzen ere araudian ezarritako terminoetan, eta haur eskola gisa sor daitezken, haiei buruzko dekretuak ezarri bezala, eta halakotzat finantza daitezken.

Atarrabiako Amaiur haur eskola sortzeko prozesuan dago, eta hemendik gutxira hasiko da Iruñeko Udalaren menpekoak diren beste bi eskola sortzeko izapidea.

Landa eremuko 0 eta 3 urte arteko eskolen eskaintza:

Nafarroako landa eremuko mankomunitate eta udalekin lan egiten ari gara, kolektibo horren eskaria, kalitate-terminoetan, artatzeko irizpide fisikoak

eta finantzaketa-irizpideak ezarriko dituen lanera-ko zirriborro baten gainean, betiere landa eremuaren berezitasuna kontuan hartuta.

Hala nahi duten familia guztiei kalitatezko eskolarako sarbidea bermatuko dien kudeaketa eredu baten azterlana. Proposamen gisako zirriborro bat egin dugu, eta bera garatzeko haur eskoletako titular diren entitateak hartuko dira aintzat.

Tarifen eta errenta-tarteen berrikuspena: Tarifak eta errenta-tarteak berrikusteko proiektu batekin ari gara lanean, gaur egun arrazoi ekonomikoak tarteko haur eskolarako sarbidea ez duten familientzat ordaintzen errazagoa izan dadin.

Kontaktuen agenda ireki eta jarraitu bat bada-go Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin, eta bertatik planteatu da 0-3 urtekoen eskolen inguruko lantalde bat sortzea, non departamentu honek parte-hartze aktiboa izanen duen, ziklorako kalitatezko eskaintza bat diseinatzeko dagozkion erantzukizunak bere gain hartuta.

Sare bakarra eratzeak berarekin dakar Nafarroako haur hezkuntzako lehen zikloa arautu eta finantzatzeko araudia aldatzea, eta, gainera, agerikoa denez, hura aurrera eramateko aurrekontuan dirua izatea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, “itzaleko bidesari-sistema” izenekoaren bidez finantzatutako azpiegituren kostuari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “itzaleko bidesari-sistema” izenekoaren bidez finantzatutako azpiegituren kostuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 28ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 19an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderari (PES 00008), ondotik datorren erantzuna eman dio Garapen Ekonomikorako kontseilariak, behean sinatzen duenak, bere Departamentuari dagokionez:

- Nafarroako Gobernuak “itzaleko bidesaria” dela-eta egindako ordainketen urte-

zerrenda (erabiltzaile-kopurua adierazita), azpiegitura bakoitzarena.

Une honetan, eta Garapen Ekonomikorako Departamentuari dagokionez, bi administrazio-emakida daude itzaleko bidesariaren modalitatearen bidez izapidetuta, eta hauek dira:

1. “Iruña-Logroño autobia (A-12) egin, zaindu eta ustiatzeko obra publikoen kontzesio kontratua” 2002ko irailaren 24an Autovía del Camino S.A. sozietate kontzesiodunarekin sinatu zena.

A-12 (Iruña-Logroño) 70,4 Km-ko Bideko Autobiaren eraikuntza eta ustiaketa emakida-araubidean, “itzalpeko bidesariaren” modalitateaz, egitea ezarri zen Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilariaren uztailaren 2ko 747/2002 Foru Aginduaren bitartez, 30 urteko gehieneko epearekin (2032ra arte).

2. “Pirinioetako Autobia (A-21) egin, zaindu eta ustiatzeko obra publikoen kontzesio kontratua” 2009ko uztailaren 31n Autovía del Pirineo S.A. sozietate kontzesiodunarekin sinatu zena.

A-21 (Iruña-Esa-Aragoiko muga) 45,4 Km-ko Pirinioko Autobiaren eraikuntza eta ustiaketa emakida-araubidean, “itzalpeko bidesariaren” modalitateaz, egitea ezarri zen Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilariaren uztailaren 3ko 66/2009 Foru Aginduaren bitartez, 30 urteko gehieneko epearekin. Epe hori 2039an amaitzen da.

Oraindik ere egin gabe dauden autobio 4. eta 5. tarteak eraikitze emakida bat da (0, 1, 2 eta 3).

tarteak jada Nafarroako Gobernuak zuzenean eginda zeuden, eta bera arduratu zen gero azpiegitura osoa ustiatzeaz (tarte guztiak).

Kontratu horiei dagokionez, garrantzitsua da honako hau aipatzea:

- Bi emakida-kontratuetan, emakidadunaren eskubide eta betebeharren artean, honako hauek daude jasota:

- “Emakidadunak eskubidea du eskari-kanona kobratzeko, autobien erabiltzaileek hura erabiltzeari dagokiona, eta kanon horren tarifak berrikusteko, kontratu honetan ezarritakori jarraituz”

- “Kontratuaren exekuzioa, bai eraikuntza eta ustiaketa faseetan, bai finantzaketari dagokionean, emakidadunaren arrisku eta menturara egingen da”

- Departamentuaren jarduketak bideratuta daude Foru Administrazioak sinatutako emakida-kontratuak zuzen bete eta exekutatzera, betiere azken horren interesak zainduz. Horri dagokionez, aipatu beharra dago behar diren kontrolak egiten direla bermatze aldera Nafarroako Gobernuak ez duela kalte ekonomikorik pairatuko, betiere sinatutako kontratuen lege-esparruaren barruan.

Honako hauek izan dira kontratu horietan ezarritako kanon desberdinen kontzeptuan ukitutako azpiegituren emakidadun diren sozietateei, funtzionamenduan jarri zirenetik itxitako azken aurrekontu ekitaldiaren (2015) amaierara arte, ordaindutako kopuruak:



**BIDEKO AUTOBIAREN EMAKIDADUNA**

URTEAK	ORDAINDUTAKO KANONAREN ZENBATEKOA
2007	27.526.751,28
2008	40.199.199,54
2009	39.560.918,11
2010	37.694.454,00
2011	39.900.630,72
2012	40.120.183,84
2013	38.007.952,26
2014	36.322.924,28
2015	38.547.344,70
<b>GUZTIRA</b>	<b>337.880.358,73</b>

**“PIRINIOKO AUTOBIA” EMAKIDADUNA**

URTEAK	ORDAINDUTAKO KANONAREN ZENBATEKOA
2012	13.139.622,59
2013	14.985.160,74
2014	15.122.085,51
2015	14.491.648,99
<b>GUZTIRA</b>	<b>57.738.517,83</b>

Erabiltzaile kopuruari dagokionez, ibilgailu/km/urte bakoitzeko datuak honako hauek dira, hilez hileko datu metatuak hartuta:

<b>A-12 BIDEKO AUTOBIA</b>			
URTEAK	ARINAK	ASTUNAK	GUZTIRA
2007	262.277.747	32.258.326	294.536.073
2008	270.003.855	33.255.072	303.258.927
2009	273.478.310	30.986.102	304.464.412
2010	276.945.551	32.430.992	309.376.543
2011	275.225.500	31.551.861	306.777.361
2012	261.794.171	29.715.571	291.509.742
2013	256.966.508	30.014.280	286.980.788
2014	263.619.512	30.855.866	294.475.378
2015	272.080.170	33.202.019	305.282.189
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.412.391.324</b>	<b>284.270.089</b>	<b>2.696.661.413</b>

<b>A-21 PIRINIOKO AUTOBIA</b>			
URTEAK	ARINAK	ASTUNAK	GUZTIRA
2012	104.200.551	5.488.913	109.689.464
2013	113.229.715	6.150.979	119.380.694
2014	117.435.362	6.036.105	123.471.467
2015	123.369.401	6.270.753	129.640.154
<b>GUZTIRA</b>	<b>458.235.029</b>	<b>23.946.750</b>	<b>482.181.779</b>

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari Departamentuari dagokionez, obra publikoen emakidarako bi kontratu daude, zeinetan INTIA SA baita emakida egiten duen sozietate publikoa:

3. “Nafarroako Ubideko 1. faseko zabalpeneko ureztatu beharreko eremuaren interes orokorreko azpiegituren eraikuntzarako eta ustiaketarako kontratua, 2014ko maiatzean INTIA SAK Aguas de Navarra sozietate emakidadunarekin sinatutakoa.

Emakida kontratu hori dela eta gaur arte ez da oraindik inongo ordainketarik egin.

4. “Nafarroako Ubideko 1. faseko ureztatu beharreko eremuaren interes orokorreko azpiegituren eraikuntzarako eta ustiaketarako kontratua, 2006ko irailaren 26an INTIA sozietate emailearen eta Aguacanal SA sozietate emakidadunaren artean sinatua.

Kontratu horiei dagokienez, garrantzitsua da honako hau aipatzea:

– Emakidadunak eskubidea du eskari-kanona, azpiegiturako erabiltzaileek kontsumitzen duten ur-bolumenari dagokiona, kobratzeko, bai eta azpiegituraren baliagarritasunarekin lotuta dagoen kalitate- eta kudeaketa-kanonari dagokiona ere, eta kanon horien tarifak berrikusteko, kontratuaren ezarritakoari jarraituz.

– Kontratuaren exekuzioa, bai eraikuntza eta ustiaketa faseetan, bai finantzaketari dagokionean, emakidadunaren arrisku eta menturara egingen da.

– Departamentuak eta INTIA SAK aipatutako kontratuen kudeaketarako sinatutako hitzarmenen indarrez, egiaztatzen da haiek zuzen betetzen eta exekutatzeko direla, betiere Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren interesak zainduta.

Erantsitako Excel dokumentuan, “Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasea. Nafarroako Gobernuak, 2007tik 2015era bitarteko kanonak” izenekoan, Nafarroako Ubidearen 1. faseko eremu ureztagarriaren eraikuntzarako eta ustiaketarako kontratuaren kalitatearen eta azpiegituraren kudeaketarako kanonaren (CCGI) eta eskari-kanonaren (CD) kontzeptuan egindako ordainketak, 2007tik 2015era bitartekoak, ageri dira.

• Enpresa esleipen-hartzaileek azpiegitura bakoitzean egindako inbertsio osoaren xehakitzea.

– A-12 autobiarri (Bideko Autobia) dagokionez, eskaneatuta erantsi dugu Herri Lan, Garraio eta Komunikazioko kontseilariaren urtarrilaren 30eko 7/2008 Foru Agindua, zeinean onetsi baitzen aitortutako obren guztizko aitortuaren amaierako prezioa (PFCOR) onetsi zen, emakida-kontratuaren eraginetarako. Kontratu horretan ezartzen da aurrez aitortutako amaierako prezioa (PFOR) obretako bakoitzean (5 tarte daude). Prezio horrek 389.849.719,02 euroko kopurua (BEZa barne); horrenbestez, kontuan hartuta inbertsioaren aldi indarra zuen BEZa % 16koa zela, emakidadunak egin behar izan zuen inbertsioa 336.077.343,98 eurokoa (BEZik gabe) izan zen.

– A-21 autobiarri dagokionez (Pirinioko Autobia), sei tarte dauzka. Lehenengo lauak, Iruña eta Venta de Judas (Irunberri) artekoak Nafarroako Gobernuak egin zituen zuzenean, eta 4. tarte (Venta de Judas-Esa) eta 5. tarte (Esa-probintziako muga) azpiegituraren egungo emakidadunak egin zituen. Enpresa hori azpiegitura osoaren (hau da, bost tarteetan) ustiaketa eta mantentzeaz arduratzen da. Ondoren azaltzen ditugun kostuak BEZik gabekoak dira, zeren eta emakidadunak egindako inbertsioaren aldi indarduna % 16tik % 18ra eta gero % 21era aldatu baitzen.

• Emakidadunak egindako obraren kostua, hau da, 4. eta 5. tarteetako dagokiena, eskaneatuta erantsi ditugun ebazpenei jarraituz (2012ko ekainaren 26ko 625. eta 626. ebazpenak), non tarte bakoitzerako jatorrian egindako azken kostu-zerrenda baloratua ageri baita, obraren behin betiko balioa 100.998.879,47 eurokoa da 4. tarterako eta 90.453.809,68 eurokoa 5. tarterako; hau da, guztira 191.452.689,15 eurokoa da.

• Nafarroako Gobernuak exekutatuak diren obrek (0., 1., 2. eta 3. tarteak) Nafarroako Aurrekontuen kargura izan duten kostuari dagokionez, obretako bakoitzaren likidazio-prezioak honako hauek izan dira amaierako ziurtagirietan jarraituta:

0. tarte: AP-15 A-21 lotura	8.033.899,06 € (BEZik gabe)	91/2006 Ebazpena, urtarrilaren 17koa:
1. tarte: Noain - Elo	21.359.822,05 € (BEZik gabe)	575/2007 Ebazpena, maiatzaren 29koa
2-1 tarte: Elo-Getze-Idotzin	10.967.987,66 € (BEZik gabe)	29ko 646/2009 Ebazpena, maiatzaren 27koa
2-2 tarte: Getze-Idotzin-Izko	16.344,19 euro (BEZik gabe)	Uztailaren 24ko 841/2009 Ebazpena
3. tarte: Izko - Venta de Judas.	28.338.343,00 € (BEZik gabe)	Abenduaren 24ko 1506/2010 Ebazpena

Kasu honetan, BEZ guztiak % 16koak izan ziren.

Prezioen berrikuspenen guztizko kopuruak honako hauek izan ziren:

0. tarte: AP-15 A-21 lotura	651.000,13 € (BEZik gabe)
1. tarte: Noain - Elo	3.222.186,35 € (BEZik gabe)
2-1 tarte: Elo-Getze-Idotzin	1.907.487,28 € (BEZik gabe)
2-2 tarte: Getzeko lotura-Idotzin-Izko	3.350.293,27 € (BEZik gabe)
3. tarte: Izko - Venta de Judas.	42.304,73 € (BEZik gabe)

Horrenbestez, A-21 azpiegitura osoaren guztizko kostuari (BEZik gabe) dagokionez, hau da, hura osatzen duten sei tarteei dagokionez, 288.349.720,87 eurokoa da (191.452.689,15 euro, enpresa emakidadunak exekutatuak, eta 96.897.031,72 euro, Nafarroako Gobernuak zuzenean exekutatuak).

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari dagokionez, erantsitako Excel dokumentuan, "Inbertsio osoaren eta eraikitako azpiegituren koadroa" izenekoa, aipatutako kontratuko I. sektoretik X. sektorerako bitarteko obra-proiektuen zenbatekoak sartzen dira. Hartan, sektore bakoitzeko erabiltzaileak sartzen dira (sektore bakoitzean sartutako finken jabeak).

- Urteko ordaintzen eta amortizazioaren egoeraren proiektio bat, kontuan hartuta interes-tasen bilakaera, zeinean egonen baillirareke azpiegitura horiek baldin eta zuzeneko inbertsio publikoaren formula baliatuta eraikitzea erabaki izan balitz.

Aipatutako azpiegituretan (A-12 eta A-21) enpresa emakidadunek egiazki egindako inbertsioen datuekin, eta kontuan hartuta inbertsioak zein alditan egin diren (A-12ko inbertsioa 2002tik

2007ra bitarteko urteetan egin zen, eta A-21ean, berriz, -4. eta 5. tarteak- 2009tik 2012ra egin zen), zenbait kasu aipa daitezke amortizazioen eta urteko ordaintzetei buruz, hartutako finantzaketa motaren edo moduaren arabera, eta bereziki finantzaketa horiek lortzeko erabili diren kredituen eta zor-jaulkipenen amortizazio epeei dagokionez.

Beti ere, eraikuntza zuzeneko inbertsio publikoaren formularen pean egitea erabaki izanaren oinarriko hipotesiaren barruan ari gara, eta amortizazioei eta urteko ordaintzetei buruzko balizko kasuen zerrenda amaigabea da. Kontuan hartu behar litzateke, urte horietako batez besteko bajei erreparatuta, ezen, bi proiektu horiek urteetan zehar lizitatu izan balira aurrekontuaren ohiko bidetik, amaierako kostuak txikiagoak izanen zirela emakidadunei aitortutakoa baino. Horrek are gehiago handituko luke kasuistika.

Halaber, kontuan hartu behar dira hemen bi proiektu horiek egin ziren epean egiteko zeuden legezko mugak. Izan ere, arau batzuk bazeuden Nafarroaren zorpetze-ahalmena mugatzen zutenak, nahiz eta agerikoa den (askotan gertatutakoa ikustea besterik ez dago), ez zutela oraingo exijentziak daukan maila, Europako eta Konstituzioko esparru berriaren ondorioz (Konstituzioko 135. artikulua aldaketa eta aurrekontu-egonkortasu-

nari buruzko lege organiko berria). Orain galdera da –eta orduan ere egin horrelaxe egin behar zena bi obrak errekor gisako epean egiteko adina urgentzia luzaezinik ba ote zegoen, edo, bestela, ez ote zitezkeen egin erritmo apalago batekin, aurrekontuaren ohiko bidetik.

Gogoeta horrek bere garrantzia dauka, bereziki egiaztatzen denean ezen proiektu handiengan, Bideko Autobiarenean, lehenengo 9 urteetan ordaindutako kanona 338 milioi eurokoa dela, eta obra guztien amaierako prezio aitortua ia 390 milioi eurokoa dela. Agerikoa da ez direla bi magnitude homogeen (bata obrak egin ziren urteetako –2002tik 2007ra bitarteko urteak– diruari dago-kio, eta bestea, berriz, 2007tik 2015era ordaindutakoari dagokio; gainera, kanonarekin batera, kontserbazio- eta ustiaketa-lanak ordaintzen dira), baina adierazgarri gertatzen da hain urte gutxitan –emakidaren gehieneko epea 2032ra artekoa da– ordaindutako bolumena hain aipagarria izatea inbertsioaren bolumenarekin alderatuta.

Funtsean, lankidetzaren publiko-privatuaren eredu honetan gertatzen dena da, bereziki kanonean demandaren arrisku aipagarria dagoela an-

tzematen denean, negozio-ereduan esku hartzen duten agente guztiek zalantza- eta arrisku-mailak –eraikuntza, finantzaketa, ustiaketa, eskaria– behar adina estali behar izaten dituztela, eta horrek amaieran proiektua garestitzea ekarri ohi duela, ohikoagoa den aurrekontuaren bidea erabiliz baldintza normaletan izanen zirenak baino dezente gehiago.

Halaber, galde liteke eta lankidetzaren formula hauek erabiltzeak aldeko eragin ekonomikoak aurreratzen ote dituen, zeinak, geroago iritsiko baitziren, eta aurrerapen horrek kostuaren igoera nabarmen hori justifikatzen duen. Ez dirudi hala izan denik proiektu hauen kasuan.

Nolanahi ere, kasuistika hain askotarikoa izan liteke eta agertokiak hain zabalak non erantzun honen esparrua gainditzen baitute.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko otsailaren 15ean

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

2015-12-31

SDAD. CONCESIONARIA DE LA ZONA REGABLE DEL CANAL DE NAVARRA SA

	2007 (*)	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
Zenbatekoa eurotan (BEZik gabe)									
Eskari-kanonaren bidezko diru-sarrerak	70.140,33	220.016,59	902.858,89	1.690.011,09	3.376.252,41	5.369.081,65	4.867.886,94	5.627.801,24	5.888.946,25
Kalitate-kanonaren bidezko diru-sarrerak	315.813,00	969.343,49	2.469.832,53	3.630.832,96	5.119.767,28	6.488.678,56	6.688.376,40	6.715.340,63	6.650.775,45
Urteko diru-sarrerak, guztira	385.953,33	1.189.360,08	3.372.691,42	5.320.844,05	8.496.019,69	11.857.760,21	11.556.263,34	12.343.141,87	12.539.721,69
<b>Kanonen guztizkoa, Nafarroako Gobernua kenduta (CD + CCGI)</b>	<b>385.953,33</b>	<b>1.189.360,08</b>	<b>3.372.691,42</b>	<b>5.320.844,05</b>	<b>8.496.019,69</b>	<b>11.857.760,21</b>	<b>11.556.263,34</b>	<b>12.343.141,87</b>	<b>12.539.721,69</b>
Zenbatekoa eurotan, BEZarekin (1)									
Eskari-kanonaren bidezko fakturazioa	81.362,77	255.219,22	1.047.316,31	1.994.126,07	3.983.978,25	6.475.252,33	5.890.143,42	6.809.639,50	7.125.624,96
Kalitate-kanonaren bidezko fakturazioa	366.343,28	1.124.438,48	2.865.005,71	4.268.834,73	6.041.325,41	7.770.213,10	8.092.935,22	8.125.562,16	8.047.438,29
Urteko fakturazioa, guztira	447.706,05	1.379.657,70	3.912.322,02	6.262.960,80	10.025.303,66	14.245.465,43	13.983.078,64	14.935.201,66	15.173.063,25
<b>Kanonen guztizkoa, Nafarroako Gobernua bame (CD + CCGI)</b>	<b>447.706,05</b>	<b>1.379.657,70</b>	<b>3.912.322,02</b>	<b>6.262.960,80</b>	<b>10.025.303,66</b>	<b>14.245.465,43</b>	<b>13.983.078,64</b>	<b>14.935.201,66</b>	<b>15.173.063,25</b>
<b>Kontsumoa (m<sup>3</sup>)</b>									
	1.474.840	4.681.333	18.406.627	32.840.294	62.477.661	91.735.636	76.004.672	90.267.525	97.658.825
(1) BEZaren BILAKERA (% 16 2010-06-30era arte; % 18 2010-07-01etik aurrera; % 21 2012-07-01etik aurrera)									
(*) 2007. urteko datuen barruan, 2006o abenduaren 20tik 31ra sortu eta 2007an fakturatu ziren honako diru-sarrera hauek, jaso dira:									
	2006								
Zenbatekoa eurotan (BEZik gabe)									
Eskari-kanonaren bidezko diru-sarrerak	0,00								
Kalitate-kanonaren bidezko diru-sarrerak	7.731,57								
Urteko diru-sarrerak, guztira	7.731,57								
Zenbatekoa eurotan, BEZarekin									
Eskari-kanonaren bidezko fakturazioa	0,00								
Kalitate-kanonaren bidezko fakturazioa	8.968,62								
Urteko fakturazioa, guztira	8.968,62								
<b>KONTSUMOA (m<sup>3</sup>)</b>	<b>0</b>								

2015ek

## NAFARROAKO UBIDEAK UREZTATUKO DUEN EREMUKO INTERES OROKORREKO AZPIEGITURAK. 1. FASEA

o abendua

## INBERTSIOEN ETA ERAIKITAKO AZPIEGITUREN LABURPEN-TAULA, SEKTOREKA

	OBRAN EGINDAKO	AMAIERAKO LURZATHEGITURA						ERAIKITAKO AZPIEGITURAK (5)					
		AZALERA (Ha-t)	LUR-ZATI	JABE KOPURUA (3)	ZENBAT UNITATE UREZTAKETA	UR-HARGUNEE	HODIEN LUZERA	BIDEEN LUZERA	DRAIN ATZEEN	PONPA KETARE			
I. sektorea	-	1.152	421	397	179	216	49.677	48.295	901	170			
II.1 Sektorea	9.797.921,83	1.058	338	334	139	189	43.341	42.967	6.131	382			
II.2 Sektorea	19.509.688,24	3.155	933	855	367	539	97.856	134.796	43.835				
III. Sektorea	8.412.445,90	1.166	354	235	161	210	39.742	46.742	32.036				
IV.1 Sektorea	19.978.825,51	2.389	589	261	286	422	80.128	111.801	26.252	378			
IV.2 Sektorea	7.810.046,49	903	78	78	64	123	29.860	45.726	22.528				
IV.3 Sektorea	12.068.919,61	1.446	197	133	144	217	47.786	62.789	30.359				
IV.4 Sektorea	17.372.252,05	2.630	539	430	239	378	71.312	92.292	44.971	133			
IV.5 Sektorea	15.713.277,55	1.958	305	184	218	270	59.645	85.713	8.456				
V. Sektorea	6.903.302,55	910	372	392	124	143	28.845	41.588	28.016				
VI. Sektorea	7.476.605,29	822	534	338	141	160	34.891	44.654	13.096	498			
VII. Sektorea	10.804.193,84	1.537	262	140	150	222	46.479	57.187	24.203	192			
VIII. Sektorea	3.289.883,92	247	69	52	44	47	11.278	16.200	7.677	241			
IX. Sektorea	16.178.049,44	1.988	401	315	230	297	66.011	94.298	41.413	0			
X sektorea	10.241.892,96	1.103	228	67	175	192	50.691	55.907	14.570	210			
PAE	4.319.635,28	-	-	-	-	-	-	-	-	-			
<b>GUZTIRA</b>	<b>169.876.940,46</b>	<b>22.464</b>	<b>5.620</b>	<b>4.211</b>	<b>2.661</b>	<b>3.625</b>	<b>757.542</b>	<b>980.955</b>	<b>344.444</b>	<b>2.206</b>			
		batez besteko azalera	4,0	5,3	8,4	6,2		ponpaketa-azalera		% 9,8			

(1) KONTRATA BAKOITZEKO EXEKUZIOA + BEZA (% 16, 2010-06-30eras arte; % 18 2010-07-01etik) + sozietate emakidadunari egindako ordainketak (Cl. 8x PCAP) + sozietate emakidadunaren kargurako beste inbertsio batzuk

(2) IV.5-2, VII. eta IX. SEKTOREETAKO PROIEKTUAK. % 16ko BEZAREKIN ONETSIAK. % 18ko BEZAREKIN ONETSITAKO OJAPAK

(3) UREZTATZAILAK 800 INGURO DIRA, PERTSONA FISIKOAK ETA JURIDIKOAK (KOOPERATIBAK, HERRI-LURRAK ETA ABAR) BARNE

(4) UREZTAKETA-UNITATEAREN GUTXIENKO TAMAINA 5 HA-KOS DA BATZUETAN JABE BATEK BAINO GEHIAKOK PARTEKATZEN DUJTE UREZTAKETA-UNITATEA, ETA BATERA ZEIN BEREIZ USTIATZEN DUJTE

(5) BIDEEN ETA HUSTUBIDEEN GUZTIZKO LUZERA ALDAGARRIA DA (AL TAK ETA BAJAK) ALDE GUZTIAK ADOS JARRITA (OTSEX, CGR, CORR Y AGUACANAL)

## **Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko hitzarmenak bere sinatzetik sortu dituen lanpostuei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Sáez Barrao andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko hitzarmenak bere sinatzetik sortu dituen lanpostuei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko urtarrilaren 28ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeko kide M<sup>a</sup> Teresa Sáez Barrao andreak 9-16-PES-00009 idatzizko galdera egin du, jakin nahi baitu zenbat lanpostu sortu dituen Nafarroako Unibertsitate Klinikarekiko hitzarmenak, sinatu zenetik. Hauxe da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak ez du galdera horri erantzuteko informaziorik.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko otsailaren 11n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## **Galdera, azken lau urteotako I+G+Bko hobariei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Fátima Andreo Vázquez andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, azken lau urteotako I+G+Bko hobariei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 5eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari María Fátima Andreo Vázquez andreak idatziz erantzuteko galdera egin ditu (8-15/PES-00010) azken lau urteotako I+G+Bko hobarien zenbatekoari buruz. Galdera hori 2016ko urtarrilaren 28ko 327 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuako Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Lehenbizi, zehaztu beharra dago "hobari" hitza interpretatu dela aplikatutako kenkari fiskalei buruzko galderan aipatzen den zentzuan. Hori dela eta, ulertzen dugu 2011ko, 2012ko, 2013ko eta 2014ko aplikatutako I+G+bregatikoko kenkariaren zenbatekoei buruz ari garela (ez sortu eta aplikatzeko dagoen kenkariari buruz).

Eskainitako informazioa enpresek egindako aitorpenei dagokie, bai S90 ereduakoei (norbanakoen aitorpena), bai 220 ereduakoei (bateratze fiskaleko aitorpena).

Modu gehigarrian, eta azken urteetan emandako informazioarekin bat, aipatzen da datuak Nafarroako araudiaren arabera zergak ordaintzen dituzten enpresei buruzkoak direla. Zergak Nafarroako araudiko zenbateko erlatiboarekin ordainduz gero, ez da informazioa bereizten, eta aplikatutako kenkariaren guztizko zenbatekoa ematen da, ez soilik Nafarroari dagokiona. Esandakoari jarraituz, ez dago daturik Nafarroaz besteko araudietako (hau da Estatuaren nahiz euskal lurralde historikoen ereduekin) zenbateko erlatiboekin aitorpenak egiten dizkiguten enpresek aurkeztutako aitorpenei buruz.

Azkenik, adierazi beharra dago ezin dagoela I+G+brengatik aplikatutako kenkarietan informazioa bereizterik, zehazte aldera zein atal litzatekeen ikerketa eta garapeneko eta zein atal berrikuntzako, zeren eta guztizkoa laukitxo berean baitago (5707 laukitxo S90 ereduan eta 963 laukitxo 220 ereduan).

Urtea	Eredua	Aitorpen kopurua	I+G+b ardura	Eredua	Aitorpen kopurua	I+G+b ardura	Aitorpenen kopurua, guztira	I+G+b ardura, guztira
2011	S90	237	20.857.861,22	220	21	6.591.889,15	258	27.449.750,37
2012	S90	239	14.046.727,17	220	13	13.012.159,14	252	27.058.886,31
2013	S90	249	16.990.116,66	220	16	9.023.482,08	265	26.013.598,74
2014	S90	237	17.286.414,12	220	25	9.406.681,96	262	26.693.096,08

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko otsailaren 12an.

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:  
Mikel Aranburu Urtasun

## **Galdera, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrendari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrendari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 5eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-

16/PES-00011), jakin nahi baitu zein den 2015eko uztailaren 20an eta 2016ko otsailaren 1ean, Tuterako Reina Sofía Ospitaleko ekografiako eta erresonantziako proba diagnostikoetako itxarote-zerrenda. Hona Osasuneko kontseilariaren informazioa:

Itxarote-zerrendei buruz dauzkagun iraganeko datuak hilen amaieretakoak dira. Horrenbestez, ezin da jakin Tuterako Reina Sofía Ospitalean proba osagarrietarako itxarote zerrenda zenbat pertsonatakoa den iraganeko egun jakin batean.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko otsailaren 24an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos



## **Galdera, Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa, Nafarroako jarduera lirikoa Nafarroako Fundazio Lirikoaren inguruan metatzeko aukera dela-eta.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa, Nafarroako jarduera lirikoa Nafarroako Fundazio Lirikoaren inguruan metatzeko aukera dela-eta. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 5eko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko otsailaren 26an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakin nahi baitu zein den Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioa Nafarroako jarduera lirikoa Nafarroako Fundazio Lirikoaren inguruan metatzeko aukera dela-eta (9-16/PES-00012). Hona Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilariaren erantzuna:

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuan 2015eko irailaren 14an ezagutu genuen Lirika Denboraldiaren proiektua, CAN Fundazioko arduradunekin lehen harremanak izateko eta CAN Fundazioaren beraren programak eta laguntzak zein La Caixarekin partekatutako obra sozialekoak ezagutzeko egindako lehenengo bileran. Orduan jakinarazi zitzaigun proiektua zenbait hilabete lehenagotik lantzen hasia zela, eta jatorrian AGAOk sustatutako proiektua zela, eta haren inguruan batera lan egiten ari zirela banku-fundazioak eta Nafarroako opera-eragile programatzaile eta ekoizle nagusiak: Baluarte Fundazioa, AGAO eta Ópera de Cámara de Navarra (OCN). Halaber, jakinarazi zitzaigun zein premisatan oinarrituta zegoen proiektua, eta zein ziren banku-fundazioek proiektu hori ekonomikoki laguntzeko baldintzak:

– Inplikaturako alde desberdinen artean adostasuna egotea (AGAO, Ópera de Cámara de Navarra, Baluarte Fundazioa, Nafarroako Orkestra Sinfonikoa).

– Proiektuak osagai sozial eta hezkuntzazko handia izatea.

Beren aldetik, banku-fundazioak proiektuko eragileei jakinarazia zieten amaieran guztia lankidetzan ari ziren obrako erabaki-organoen amaierako onespeneraren menpean zegoela. Lehenengo unetik, gu prozesu horretan behatzaile gisa kokatu ginen, eta elkarrizketen berri izatea eskatu genuen.

2015eko azaroaren 11, alde guztiek Baluartean egin beharreko bilera batera deitu gintuzten. Bilera horretara Baluarte Fundazioko zuzendaria, OCNko zuzendaria, CAN Fundazioko zuzendaria, Kultura zuzendari nagusia, La Caixa Fundazioko Obra Sozialeko arduraduna, AGAOk bi ordezkari (zuzendari kudeatzailea eta batzarkide bat) eta neroni joan ginen.

Bilera hartan mahai ganean jarri zen AGAOk sustatutako Lirika Denboraldian jarduteko entitate berri bat eratzea, eta aldeek honako hau argi utzi genuen:

– Banku-fundazioek eta Kultura Departamentuko arduradunek argi utzi genuen inolaz ere ez genukeela entitate berri horretan parte hartuko bazkide sortzaile gisa. Entitate hori sortuz gero, gure eginkizuna izanen litzateke, berezkoa den bezala, bidezko laguntza ekonomikoak aztertzea, behin hura eratuta eta abian jarrita. Banku-fundazioek argi utzi zuten, berriz ere, eragile desberdinen arteko adostasuna funtsezko baldintza bat zela entitate berriak laguntza-planetan parte hartu ahal izateko.

– Gure aldetik, 2016rako aurreikusita zeuden aurrekontuekin (gure departamentuak ordurako aurreproiektua aurkeztua zuen, zegokigun gastu-sabaia ezagutu ondoren), jakinarazi genuen segur aski ezin izanen zela aurreko urteetan egindakoa baino ahalegin ekonomiko handiagorik egin lirikaren esparruan. Egun haietan, Kultur Ekintza Zerbitzua azterlan bat egiten ari zen zerbitzu horrek azken urteetako laguntza-deialdietan sektore artistikoen artean egindako diru-banaketari buruz.

Bilera hartan, halaber, mahai ganean jarri zen AGAOk ordezkariak egindako berriarazko eskaria, alegia, 2016ko aurrekontuetan balizko entitate berrirako (zeina, adierazi zenaren arabera, seguruen fundazio bat izanen baitzen) kontusail izendun bat izatea bultzatzea. Horri buruz, jakinarazi zitzaizen ezen, zuzenketa bidez hori egiteko

garaiz bageunden ere, zail gertatuko zela halakorik lortzea, zeren eta ez baita ohikoa izaten kontusail izendun bat sortzea eratu berritako entitate batentzat, zeinak oraindik ere ez baitu behar adinako ibilbiderik egin kontusail izendun bat eduki ahal izateko. Kontusail izendunak oso gutxi dira Kulturako aurrekontuetan, zeren eta lehia askeko prozesuetara jotzen baita, oro har.

Bilera horretan eztabaidatu zen ezen, Baluarte Fundazioa bezalako fundazio publiko bat edukita, zeinak bere eszena-eremuan opera ekoizteko, programatzeko eta hartzeko gaitasun osoa baitu, pentsatzekoa zela ea entitate bat sortzeko beharra dagoen ala ez otez zen logikoagoa Lirika Denboraldiaren lidergoa fundazio horrek berak bere gain hartzea. Bestalde, OCNk zalantza batzuk adierazi zituen entitate berri bat sortzearen abantailei buruz eta hark jarduteko zailtasunei buruz.

Abenduan zehar, zenbait hartu-eman izan ziren AGAOk Batzarreko kideekin zein CAN Fundazioko kideekin, eta egiaztatu zen oraindik ere lortu gabe zegoela eragile desberdinen arteko adostasuna, nahiz eta AGAOk zenbait batzarkidek adierazi Nafarroako Lirika Denboraldia Fundazioaren sorrera sustatzeko erabakia. Izan ere, fundazio hori sortuko zen hartan lirikarekin lotutako gainerako eragileak bertan parte hartzeko ateak zabalik edukitzeko jarrerarekin.

Abenduaren amaieran, AGAOk jakinarazi ziguten "Nafarroako Lirika Denboraldia" fundazio pribatua sortua zela, eta haren estatutuak helaraziko zizkigutela. 2015eko azken egunetan eta 2016ko lehenengoetan, kontseilariak bilera batzuk izan zituen elkarte horretako batzarreko eta gerentziako zenbait kideekin, eta telefono-elkarrizketa bat izan zuen batzarkide batekin.

Horrenbestez, esanen dut departamentuaren jarrera hasieratik argia eta gardena izan dela. Fundazioan parte ez hartzeko erabakia lehenengo egunetik jakinarazi genuen. 1997an, garai hartan Kulturaren esparruko titularra zen departamentua Pablo Sarasate fundazioko bazkide sortzailea izan zen, eta Kontuen Ganberak behin eta berriz adierazi du zeinen ezohikoa den egoera hori. Zehazki, Kontuen Ganberak 2009an egindako txostenean honako honetaz ohartarazi zitzaion Nafarroako Gobernuari: aztertu beharra dago "ea komeni den duen fundazio pribatu batean parte hartzea, diru-

laguntzaren bitartez 'de facto' kontrolatua izan daitekeena eta, parte-hartzearekin, nolabaiteko izaera publikoa hartzen duena". Izan ere, gaur egun egoera hori birbideratzeko ahaleginak egiten ari gara, Nafarroako Orkestra Sinfonikoaren jarduera fundazio publiko bati atxikitzeko, Kontuen Ganberaren gomendioei jarraituz.

2016ko aurrekontuetan Lirika Denboraldia Fundazioarentzat kontusail izendun bat sortzeari dagokionez, AGAOk batzarkideei jakinarazi zitzaizen, halaber, hurrengo ekitaldi ekonomikoetara arte itxaron beharko dela horrelako erabaki bat hartzeko, zeren eta aztertu beharko baita fundazio horrek zer bilakaera duen. Gaur den egunean, bidezkoa dena da AGAO eta OCN beren proiektuekin aurkeztea lehia askearen bidezko laguntza-deialdietara.

Logikoa den bezala, AGAOk eta Ópera de Cámara de Navarrak aurten aukera izanen dute Kultur Ekintza Zerbitzuak deitzen dituen arte eszenikoetako eta musikako proiektu artistikoetarako diru-laguntzen deialdira aurkezteko. Bere aldetik, Baluarte Fundazioak, fundazio publiko bat baita, kontusail izendun bat badauka 2016ko Kultura aurrekontuetan eta tratamendu berezia ematen zaio, zeren eta guztiz bestelakoa den entitate bat baita, eraikin baten eta eszena-espazio baten kudeaketarekin lotuta dagoena eta denboraldi artistiko erregularra duena, eta bestelako ekitaldiak ere programatzen dituen (esate baterako, zinemarekin lotutakoak, 2014an INAAC fundazioa desegin zenetik).

Azkenik, diru-laguntzen sektore artistikoen arteko banaketari buruzko arestian aipatutako azterlan horri dagokionez, Kultur Ekintza Zerbitzuak emandako azken datuen arabera 2015ean horrelako diru-laguntzen aurrekontuaren zatirik handiena arte eszenikoetara eta musikara bideratu zen. Horien barruan, % 82 musika klasikoko emaldiak izan ziren; % 9 musika lirikokoak; % 8 antzerkikoak, eta % 1 dantzakoak.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2012ko otsailaren 26an

Kultura, Kirol eta Gazteriako kontseilaria Ana Herrera Isasi

## **Galdera, NA-6900 errepideak Cascante-Fitero tartean duen egoerari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, NA-6900 errepideak Cascante-Fitero tartean duen egoerari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak 9-16/PES-00014 zenbakiko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak badaki zein egoeratan dagoen Cascante-Fitero NA-6900 errepidea. Aurreikusita zeukan hartan hobetzeko eta zabalteko lanak egin, eta hala zegoen jasota Nafarroako errepideen III. plan zuzendarian, non zubia zabaltzea ere aurreikusten baitzen. Hala eta guztiz ere, une honetan jarduketa horri aurre egitea ezinezkoa da, zeren eta aurrekontuan ez baitago batere dirurik horretarako.

Fiteroko zubia iragate-obra bat da, adreiluz egindako bi bobeda karpanel dituen, eta bobeda horiek hormigoi aurreatezatz aurrefabrikatutako hagen bidez zabalduko plataforma bati eusten diote. Hago horiek estribuetan eta erdiko zutoineko zubi-bularren gaineko emendatuetan daude bermatuta.

Egitura, hasiera batez 1986an inbentariatu zena, 2008an eta 2010ean ikuskatu zen, iragate-obren kudeaketarako sistema bat (zubien inbentarioa eta ikuskatzea) ezartzearen ondorioz, Garapen Ekonomikorako Herri Lanen Zuzendaritza Nagusiko Kontserbazio Zerbitzuan. Ordurako, 2008an, atzeman zen 2. estribuaren inguruan plataformak nolabaiteko deformazioa zuela; hori dela eta, 2010ean berriz ikuskatu zen, baina ez zen aldaketa handirik nabaritu. Iraganean, pitzadura longitudinalak ere aurkitu ziren, bi aldeetan atxikitako hagen deformazioen eta bobedaren

deformazioaren arteko bateraezintasunaren ondoriozkoak.

2013ko apirilaren hasieran, hasieran aurkitutako kalteek islatzen zuten beheratutako esparruan deformazioa handitua zela, eta 2. bobedako ahoko piezetako pitzadurak nabarmen handituak zirela. Fenomeno horiek nahiko ezohikoak dira, eta balizko akats modu batzuekin lotuta egon litezke.

Bertatik bertara egindako oharpen horien eta eskura zeuden datuen azterketaren ondorioz, iragate-obraren ikuskatzea agindu zen.

Ikuskatze-lan hori 2013ko apiriletik maiatzera egin zen. Lan horiek garatu bitartean, laginketa bat egin zen, eta 2. baoko bobedatik lekuko bat atera zen. Ikuskatze berezi horren emaitzak 2013ko maiatzaren 6an emandako txostenean jaso ziren.

Ikuskatze bereziko txosten horretatik eta egituraren gainean erregularitasunez egiten ari den nibelatze topografikoaren eta jarraipenaren ondorioz –azkena 2015eko abenduaren 29koa da–, ikusi da beheratze nabarmenak gertatu direla kontrol topografikoko lanak hasi zirenetik. Nabarmen-tzekoak dira bobedetan gertatutako beheratzeak, batez ere 2. iltzean aurkitutako gezia –galtzadaren ardatzean dago iltze hori, hau da, 2. baoko (Fiteroko aldea) bobedaren erdigunean–, 18 mm-ko beheratzearekin, nibelatzea egiten hasi zenetik kontatuta.

Egoera horrek, bai eta 2. baoko giltzarriaren inguruan zoladurak duen beheratzeak ere, trazadura nahiko longitudinalako pitzadura batzuekin batera, intradoserantz okertuta, beharrezko egin dute trafiko astunaren iragatea murriztea (gehieneko zama 5 tonakoa da, abiadura orduko 40 km-ra murriztuta eta egituraren gainean ibilgailu astunak batera gertatzea mugatuz), segurtasunezko prebentzio-neurri gisa; halaber, Sertecna-Fhecor enpresari eskatu zaie Alhama ibaiaren gaineko Fiteroko zubia konpontzeko proiektua egin dezaten. Jarduketa hori aipatutako taldea egiten ari den “Nafarroako Foru Komunitateko errepide-sareko zubien egitura 2013-2016 urteetan berrikusteko laguntza teknikoa” izeneko lanen barruan dago.

NA-6900 errepideko Fiteroko Alhama ibaiaren gaineko zubia konpontzeko proiektua Javier León Gonzálezek idatzi du; “Fhecor, Ingenieros Consul-

tores" enpresako bide, ubide eta portuetako ingeniaria da.

Konponketa lanak Tuterako Kontserbazio Zentroaren 2016-2019 urteetarako Errepideen Kontserbazio Integraleko kontratuaren babesean egin dira, eta otsailaren 22an hasi dira. Exekuzio epea lau astekoa da, eta gutxi gorabeherako aurrekontua, berriz, 196.980 eurokoa da.

Hau da, zubia Kontserbazio Integraleko kontratuaren bitartez konpontzearen alde egin da, zeren

eta momentuz, azaldutako arrazoiak direla eta, ez baita egin NA-6900 errepidea hobetu eta zabalteari buruz Nafarroako III. errepideen plan zuzendarian aurreikusitako obra, zeinean zubi horren zabalpena ere aurreikusten baitzen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko martxoaren 1ean

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

## **Galdera, eskola-mapari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, eskola-mapari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldea 9-16/PES-00015 informazio-eskaria aurkeztu du. Haren bidez galdetzen da eskola mapa aldatzeko asmoei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza kontseilariaren informazioa:

"Eskola mapa" deitutakoa, gaur egun indarrean dagoena, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe sarea berrantolatzeko arauak eman zituen martxoaren 13ko 150/1995 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen. Gero zenbait aldaketa puntual egin zitzaizkion foru dekretuen bitartez, bai eta ikastetxe berriak sortzearen harira, gobernu-erabakien bitartez ere.

Ordutik iragan den denboran, aldaketa ugari izan dira, hezkuntza sisteman ez ezik gizarte

bertan ere, hainbat faktore ekonomiko, sozial eta kulturalen ondorioz. Aldaketa horiek eragin dute, 20 urte baino gehiagoko aldi honetan, eskola mapa aurreikusitakoak aldatu behar izatea, askotan egitateen bidetik, baina Hezkuntza Departamentuko aurreko arduradunek behar ziren aldaketak proposatu gabe eskola mapari buruzko araudian, hain zuzen ere errealitateari egokitzeko.

Hori dela eta, Hezkuntza Departamentuak egungo eskola mapa berrikusi, egokitu eta aldaketa-proposamen bat egiteko asmoa dauka, oro har gizartearen egoera berriari, eta bereziki hezkuntza sistemari, egokitzeko.

Proposamen horrek ez du zertan ekarri muturreko aldaketarik gaur arte egon den eskualdebanaketan, baina bai ekarriko du ikastetxeak egungo beharkizunetara egokitzea, haietan behar diren jarduketan plangintza egin ahal izateko eta haiek aurrekontuetan jaso ahal izateko. Hori guztia egingen da pertsonen beharrezan egokitzen saiatuz, herritarrak hezkuntza-maila desberdinetara berdintasun-baldintzetan sartu ahal daitezen bilatuz eta, ahal den neurrian, ikastetxearen hurbiltasuna bilatuz, horrek hezkuntzaren kalitatea gutxitzen ez duen bitartean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Zika birusari buruzko jarduketa-protokoloa dela-eta.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos García Adanero jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Zika birusari buruzko jarduketa-protokoloa dela-eta. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 1ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos García Adanero jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-16/PES-00016), jakin nahi baitu Nafarroako Gobernuak Zika birusari buruzko jarduketa-protokolorik prestatu duen. Hauxe da Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilariak horren gainean informatu beharrekoa:

Nazio mailan “Zika birusaren ondoriozko gaixotasuna zaintzeko protokoloa” 2016ko otsailaren 10eko Osasun Publikoaren Batzordean onetsi ondoren eta “Haurdunaldian zehar Zika birusaren kutsadurarekin lotutako balizko konplikazioak aitzemateko Ginekologia eta Obstetrizia sendagile espezialistentzako jarduketa protokoloa” 2016ko o-

tsailaren 15eko Osasun Publikoaren Batzordean onetsi ondoren, protokolo horiek Foru Komunitateko egoerara egokitu dira eta oinarritzko osasun laguntzan eta ospitaleetan jarduteko protokolo bana zabaldu dira.

Nafarroan zabalduetako protokoloek bereizita ezatzen dute Zika birusaren kutsadura izateko arriskua izan duen haurdunarekin jarduteko modua eta gaixotasunaren susmoa dagoen kasuetan jarduteko modua. Nafarroan analisiak egin ahalko zaizkie Zikaren epidemiak kutsatutako eskualdeetara bidaiatu duten emakume haurdun guztiei, sintomak nahiz ez izan, birusaren kutsadura izatea baztertzeko. Behin kutsadura konfirmatuta, Nafarroako Obstetrizia eta Ginekologia zerbitzuek zorrotz aplikatu diete protokolo nazionala Zikaren birusaren ondoriozko infekzioa duten emakume haurdun guztiei.

Protokoloak zabaltzeaz gainera, informazio-saio batzuk egiten ari gara, bai oinarritzko osasun laguntzako profesionalentzat, bai laguntza espezializatukoentzat ere.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos

## **Galdera, jakiteko ea zuzemenik egin den Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aitzinean, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistra gradu-ko ikasleek ingeleseko C1 edo B2 maila frogatuz titulua lor dezaten.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakiteko ea zuzemenik egin den Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aitzinean, Haur eta Lehen Hezkuntzako maisu-maistra gradu-ko ikasleek

ingeleseko C1 edo B2 maila frogatuz titulua lor dezaten. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeak 9-16/PES-00017 informazio-eskaria aurkeztu du. Hona hemen Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza kontseilariaren informazioa:

Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentuak eta NUPek helburu partekatua dute, alegia, gero eta handiagoa izan dadila ingelesezko maila aurreratua edo goi maila duten haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako maisu-maistren graduako ikasleak. Horri dagokionez, bi erakundeek elkarrekin lan egiten dute norabide horretan urratsak emateko modu progresibo eta errealistan.

Gaur egun, oro har, haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako maisu-maistren garduetako ikasleek gutxienez ere B1 maila bat izatea ziurtatu behar dute, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren arabera, Estatuko araudi indardunak ezarri bezala (abenduaren 27ko ECI/3857/2007 Agindua, lehen hezkuntzako maisu-maistren lanbideetan aritzeko gaitasuna ematen duten unibertsitate-titulua egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituena; abenduaren 27ko ECI/3854/2007 Agindua haur hezkuntzako maisu-maistren lanbideetan aritzeko gaitasuna ematen duten unibertsitate-titulua egiaztatzeko baldintzak ezartzen dituena).

Halaber, Nafarroako Unibertsitate Publikoak ahalegin handia egin du ingelesaren irakaskuntza hobetzeko gradu horietan; hori dela eta, gaur egun Errioxako Unibertsitatearekin batera, Estatuan atzerriko hizkuntzako nahitaezko kreditu gehien dituen unibertsitatea da: 18 ECTS, bai haur hezkuntzako maisu-maistra gradurako, bai lehen hezkuntzarako. Kopuru hori beste unibertsitate batzuetako nahitaezko kredituen eskaintzaz oso bestelakoa da: Madrilgo Universidad Complutense (6 lehen hezkuntzan eta 10 haur hezkuntzan); Euskal Herriko Unibertsitatea (12 lehen hezkuntzan eta 15 haur hezkuntzan) edo Zaragozako Unibertsitatea eta Nafarroako Unibertsitatea (12 bi graduetan).

Nolanahi ere, kontuan izan beharra dago NUPeko gradu horietako ikasleen kopuru handi batek Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru

Bateratuko C1 maila kreditatzen duela. Horietan artean daude ingelesezko aipameneko 36 kredituetan ikasten ari direnak edo ingelesezko C1 mailara iritsi eta beste ibilbide bat hautatu dutenak. Halaber, aitortu beharra dago irakasleek egindako ahalegina; izan ere, hari esker oinarritzko prestakuntzako gero eta ikasgai gehiago eskaintzen dira ingelesez, eta aukera dago, halaber, gradu amaierako lanak ingelesez defendatzeko.

Hala eta guztiz ere, gaur egun gauzatzen ezinezkoa da titulua lortzen duten guztiek gutxienez ere Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuko B2 maila kreditatzea, behinik behin unibertsitateko ikasleek gaur egun duten ingelesezko gaitasunetik abiatuta. Komeni da kontuan izatea ezen maisu-maistren graduetako ikasleek espediente onak dituzten ikasleak diren arren (10etik 7, gutxi gorabehera), ingelesezko nahitaezko kredituetan (B1 mailan) ez-gai emaitzen adierazlea handiagoa dela beste ikasgai batzuetan baino. Datua a 2009an Ingelesa I suspenditu zuten 60 ikasleetatik 5ek baizik ez zutela Ingelesa III gauditu lehenengo deialdian. Gainera bokazio handia eta espediente onak dituzten ikasle hauei ezin zaizkie exijitu lortzen ezinezkoak diren mailak, eta unibertsitateak, bestela ere, ezin ditu egiaztatu lortu ez diren hizkuntzaren gaineko jakintza eta gaitasun batzuk.

Nafarroako Gobernuoko Hezkuntza Departamentuak ongi baloratzen du eta aintzat hartzen du Giza eta Gizarte Zientzien Fakultatea ingelesaren irakaskuntza hobetzeko egiten ari den lana, eta zentro hori bultzatu nahi du hobekuntza progresibo eta errealistaren bide horretatik jarrai dezan, horren bidez lortzeko, orain gertatzen ari den bezala, gero eta ikasle gehiago egon dadila ingeles maila aurreratua edo goi maila dutenak haur hezkuntzako eta lehen hezkuntzako graduako ikasketen amaieran. Bide horrek, zalantzarik gabe, onuragarria izanen da Nafarroako hezkuntza sistemarentzat.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eginen duten Ingelesez Ikasteko Programako ikasleei jarraipen-aukera emate aldera.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa eginen duten Ingelesez Ikasteko Programako ikasleei jarraipen-aukera emate aldera. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00018 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Hezkuntza Departamentua lanean ari da 2015eko irailetik Ingelesez Ikasteko Programako ikasleei jarraitutasuna emateko dagozkien bigarren hezkuntzako ikastetxeetan. 2016-17 ikasturtean, lehen hezkuntzako hiru ikastetxetako ikasleak iritsiko dira bigarren hezkuntzara: Doña Mayor

ikastetxea, Iñaki Otxoa de Olza DBH1a atxikia duena eta Catalina de Foix eta Donejakue Bidea ikastetxea, biak ere Zizurko BHLari atxikiak. Departamentu honek zenbait bilera izan ditu Ingelesez Ikasteko Programako ikasleak hartuko dituzten ikastetxeetako zuzendaritzekin. Programa berriak orain arte aurreikusi gabe egon den egoera bati emanen dio erantzuna: Ingelesez Ikasteko Programak bigarren hezkuntzan jarraitutasuna izatea. Honako hauek izanen ditu ildo nagusi:

- Ingelesez Ikasteko Programako ikasle guztiak sartuko dira, sarrera-probarik gabe.

- Atzerriko hizkuntza ikasgaiak gainera, atzerriko hizkuntzan emanen dira hautazkoak ez diren bi arlo, gutxienez.

- Ingelesez Ikasteko Programakoak ez diren ikasleak ere sartu ahalko dira, sarrera-proba baten bitartez.

- Familiak, ikasturte bakoitzaren amaieran, programan ez jarraitzea eskatu ahalko dute.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, Done Jakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gaindiko Proiektu Sektorialaren bidez antolatutako hirigintza-eremuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Done Jakue Bideko bizitegi-eremuaren Udalez gaindiko Proiektu Sektorialaren bidez antolatutako hirigintza-eremuari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 12ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako foru parlamentari Luis Zarraluqui Ortigosa jaunak galdera egin du (9-16/PES-00019), Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariak, behean sinatzen duenak, ematen dion erantzuna:

Donejakue Bideko bizitegi-eremuaren udalez gaindiko plan sektorialari dagokionez, lehenbizi esan beharra dago Herri Lan zuzendari nagusiaren apirilaren 16ko 269/2003 Ebazpenaren bidez

onetsi zela “Abiadura Handiko Trenaren Iruñeko Geltoki Berriaren Eremuaren Hirigintza Diseinua egiteko ideien lehiaketarako deialdia” onetsi zela, bai eta lehiaketa horren oinarriak ere. Ebazpen hori 2003ko apirilaren 30eko 54. zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Epaimahaiak 2014ko urtarrilaren 21ean egin zuen irakurketa publikoan egiaztatu zen lehen sariaren irabazlea izan zela “NEXUS” leloaren pean “Alonso Hernández & Asociados Arquitectos SL” lantaldeak aurkeztutakoa.

Herri Lan zuzendariaren irailaren 27ko 503/2004 Ebazpenaren bitartez, erabaki zen “Alonso Hernández & Asociados Arquitectos SL” sozietateari esleitzea “Iruñeko etorkizuneko Tren Geltokiaren ingurua garatzeko laguntza teknikoa (Iruñeko, Zizur Nagusiko eta Zizur Zendeako udal mugapeak)” izeneko lana, arestian aipatutako 269/2003 Ebazpenaren bidez sustatutako ideia-lehiaketako oinarriari jarraituz eta Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legeko 94.4 artikuluan ezarritakoaren babesean. Lana 593.293,85 euroko zenbatekoan esleitu zitzaizen, exekuziorako 11 hilabete epea emanda.

Herri Lan zuzendari nagusiaren uztailaren 5eko 640/2005 Ebazpenaren bitartez, erreferentziako lanen lehen ziurtagiria ordaintzea agindu zen, 296.646,94 euroko prezioan.

Urtarrilaren 18ko 49/2007 Ebazpenaren bitartez, bigarren ziurtagiria onetsi zen, 296.646,91 eurokoa; halaber, esleipeneko lan guztien likidazioa onetsi zen (593.293,85 euro).

Lanak exekutatzen ari ziren bitartean, jatorrizko kontratuan aurreikusi gabeko beharizan berriak sortu ziren; besteak beste, Ingurumen eta Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren zein Industria Departamentuaren esleizitza eta Inquinasa jarduketa-esparrutik kanpora eramatea. Aldaketa horrek aprobetxamendueskubidea duten planeko azalerak % 54 zabaldu zituen, etxebizitzaren kopurua nabarmen handituta (% 376).

Egin beharreko lanen ezaugarriak zirela eta eta kontratu nagusitik ez teknikoki, ez ekonomikoki bereizteko modurik ez zegoenez, Herri Lan zuzendari nagusiaren abuztuaren 25eko 994/2009 Ebazpenaren bitartez, enpresa berari esleitu zitzaizkion “Iruñeko etorkizuneko Tren Geltokiaren ingurua garatzeko laguntza teknikoa (Iruñeko, Zizur Nagusiko eta Zizur Zendeako udal mugapeak)” izeneko lanaren lan osagarriak, 100.340,00 euroko kopuruan eta haiek egiteko bi hilabeteko epea emanda.

Herri Lan zuzendari nagusiaren urtarrilaren 25eko 105/2010 Ebazpenaz idazketa-lan horien amaierako ziurtagiria onetsi zen, 100.340,00 euroko prezioan (BEZ barne).

Horrenbestez, Nafarroako Gobernuak, guztira, 693.633,85 euro ordaindu ditu Donejakue Bideko bizitegi-eremuaren udalez gaindiko plan sektorialaren idazketa dela-eta.

Urbanizazio proiektua eta birzatatze proiektua egin zuten lantaldeentzako aurreikusitako eta hitzartutako lansariei dagokienez, esan beharra dago lan horiek ez dituela Nafarroako Gobernuak kontratatu, zeren eta, Abiadura Handia-Iruñerria Partzuergoaren estatutuetan beraietan ezarritakoaren arabera, partzuergoa bera baita eskuduna eta aipatutako udalez gaindiko plan sektorialaren garapenaz arduratu behar duena, kasuko urbanizazio-proiektuaren eta birzatatze-proiektuaren idazketaren eta izapidetzearen bitartez, eta bera da, halaber, urbanizazio lanak exekutatze arduraduna.

Partzuergoak ontzat eman zuen udalez gaindiko plan sektorialak ukitutakoan “Jabe Elkartek” (“Asociación Administrativa de Propietarios del Área del AVE”) egindako proposamena, alegia, elkartea bera izan zedila urbanizazio- eta birzatatze-proiektuak idazteko lanez arduratuko zena. Izan ere, jokabide hori legez aitortuta dago hirigintza-araudian bertan.

Horri dagokionez, 2013ko martxoaren 12an, kontratu bat egin zen (PDF artxibo batean erantsi da haren kopia) “Asociación Administrativa de Propietarios del Área del AVE” elkartearen eta proiektu horiek idazteko arduraduna zuen lantaldearen artean (Alonso Hernandez & Asociados Arquitectos, S.L., Urgein Navarra Urbanismo, S.L., V.S. Ingeniería y Urbanismo, S.L., eta Iruretagoyena-Labiano Abogados). Kontratu horretan ezarri zen lansarien eskaintza ekonomikoa –zeina itxiztat jotzen baita, hartan inongo arrazoirik gabe igoerarik edo beherapenik egin ezinik– 750.000 eurokoa (birzatatze-proiektua) eta 2.500.000 eurokoa (urbanizazio-proiektua) dela, gehi kasuko BEZa.

Lansari horien ordainketari dagokionez, kontratuan bertan honakoa ezarri zen:

“Lansariak Elkartek ordainduko ditu (kideetako bakoitzaren parte-hartzea adierazita), behin urbanizazio-proiektua behin betiko onetsi eta birzatatze proiektua jabetza erregistroetan inskribatu ondoren, betiere Administrazio jarduleak urbanizazio-kuotak igorri ondoren, haien bidez ordaindutako lansariak aurretik edo aldi berean konpentsatu ahal izateko, soilik horretarako bidea dagoen zenbatekoetan.



Horrenbestez, lansari guztien ordainketa urbanizazio-kuoten igorpenaren baitan dago, haiek behar bestekoak izan behar baitute guztizko lansarien ordainketa konpentsatzeko.

Idazketaz arduratzen den lantaldeak berariaz onartzen du baldintza hori, zeren eta bermatzen baitu kontratazioak ez dakarrela Elkarteko kideentzat gainerako jabeei dagokiena baino zama handiagoa.”

Proiektu horiek jada idatzi egin ziren, Iruñeko Udalaren Hirigintzako Gerentziaren kontrolaren

pean eta Partzuergoak berak enkargatuta, eta azkenean Partzuergoari aurkeztu zitzaizkion hasierako onespina eman ziezaien. Onespen hori 2015eko apirilean izan zen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko otsailaren 29an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

## **Galdera, Lehendakariaren aurkako ustezko mehatxu eta irain delitu batengatik Nafarroako Gobernuak Jaime del Burgoren aurka aurkeztutako kereilari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Lehendakariaren aurkako ustezko mehatxu eta irain delitu batengatik Nafarroako Gobernuak Jaime del Burgoren aurka aurkeztutako kereilari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 22ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak idatzizko galdera egin du Jaime Del Burgoren aurkako kereilaren zenbait xehetasuni buruz (9-16/PES-00020). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Ezer baino lehen, argitu beharra dago kereila ez dela aurkeztu Jaime del Burgoren aurka, baizik eta Jaime Arturo del Burgo Azpirozaren aurka.

Kereila horren artxiboa 2016ko urtarrilaren 12an jakinarazi zitzaion Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuari.

Nafarroako Gobernuak, Prentsa Kabinetearen Atalaren bitartez, asteazkeneko, exekutiboaren

asteroko bilera arruntaren amaieran, hartutako eta landutako gai garrantzitsuenen laburpena egiten du, eta horietako bakoitzari buruzko prentsa-oharrak egiten ditu. 2015eko urriaren 28ko bilkurren ondoren, horrenbestez, prentsa-ohar baten bitartez eman zen jakitera Nafarroako Gobernuak hartutako erabakia, bere aholkularitza juridikoari eskatzekoa zure parlamentu-taldearen interesekoa den herritarren aurkako lege-ekintzak aurkezteari buruzko azterlana. Agerikoa da erabakiaren interes informatiboa, gertakarian inplikaturako pertsonak direla eta: egungo Nafarroako lehendakaria eta Foru Komunitateko aurreko lehendakari baten semea. Eta Gobernuak denez ekintza juridikoak abiarazteko ekimena duena, hau da, exekutiboa denez albistearen subjektua, hari dagokio erabaki horren berri ematea. Zuk aipagai duzun prentsa-oharra hauxe da:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Actualidad/Sal+a+de+prensa/Noticias/2015/10/28/querella+criminal+contra+Del+Burgo.htm](http://www.navarra.es/home_es/Actualidad/Sal+a+de+prensa/Noticias/2015/10/28/querella+criminal+contra+Del+Burgo.htm)

Hala eta guztiz ere, kereila horri buruzko erabaki judiziala organo judizialei dagokie eta, horrenbestez, Nafarroako Auzitegi nagusiko Komunikazio Zerbitzua izan zen otsailaren 11n zabalduetako prentsa-ohararen bidez jakinarazi zuena Nafarroako Gobernuak hasitako ekintza judizialak artxibatuzeko autoa.

<http://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Tribunales-Superiores-de-Justicia/TSJ-Navarra/Noticias-Judiciales-TSJ-Navarra/La-juez-confir->

ma-el-archivo-de-la-querella-de-la-presidenta-de-Navarra-contra-Jaime-del-Burgo-por-amenazas

Ohiko jokabidea da hori, eta oinarrizko araua gainera erakundeen komunikazio kabineteetan, eta, halaber, Nafarroako Gobernuak honelako kasuetan jarraitzen duen irizpidea da; eta ez da irizpide berria, zeren eta aurreko gobernuek ere aplikatu baitute, baita 2011-2015 legegintzaldian ere, non, bidenabar esanda, galdegilea bera baitzen komunikazio instituzionalaren arduraduna.

Horrenbestez, Nafarroako Gobernua ez da eskuduna organo judizialek hartutako erabakiei buruz informatzeko. Nolanahi ere, haiei buruzko balorazioak egin ditzake, komenigarritzat jotzen badu. Hala eta guztiz ere, arlo honetan gardenak izan behar dugu herritarren aurrean. Garrantzitsua da jakin dezazula Nafarroako Gobernuak diligen-

tziar artatu zuela kazetari batek ekintza judizial horien egoerari buruz egin zuen kontsulta, zeina bakarra izan baitzen. Zehazki, kazetari horrek posta elektronikoz eskatu zuen informazioa otsailaren 3an, eta biharamunean erantzun zitzaion, une horretan eskura zeuden datuekin (hitzez hitz: “Nafarroako Gobernuaren zerbitzu juridikoak erabaki judizialaren zain daude, Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiak emandako artxibo-autoaren –urtarrilaren 12an jakinarazia– aurka erreforma-errekurtsoa aurkeztu ondoren”).

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean 2016ko martxoaren 11n

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Olló Hualde

## **Galdera, Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboaren ebazpenak argitaratzeari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboaren ebazpenak argitaratzeari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 22ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique

jaunak idatziz erantzuteko galdera egin ditu (9-16/PES-00021) Nafarroako Administrazio Auzitegi Ekonomiko-administratiboaren ebazpenak behar adina ez argitaratzeari eta atzerapenarekin argitaratzeari buruz. Galdera hori 2016ko urtarrilaren 7ko 482 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Parlamentu-galderan aipatzen diren urteetan, Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboak honako ebazpen-proposamenak egin ditu, Nafarroako Gobernuak berrets ditzan, eta ondoren aipatutako erabakiak argitaratu ditu:

URTEA	EGINDAKO PROPOSAMENAK	ARGITARATUTAKO ERABAKIAK	URTEA	EGINDAKO PROPOSAMENAK	ARGITARATUTAKO ERABAKIAK
2005	863	189	2011	602	0
2006	715	89	2012	623	36
2007	600	38	2013	555	108
2008	394	28	2014	581	0
2009	566	69	2015	584	0
2010	657	25	2016	127	0

Adierazi didatenaren arabera, azken urte hauetan argitalpen gutxi egin izanari dagokionez, horren arrazoiak arazo informatiko bat izan da, zeinak galarazi baitu hautatutako ebazpen ekonomiko-administratiboak sareratzea. Arazoa 2012. urtean sortu zen, eta une horretatik aurrera Nafarroako Gobernuaren internet atarirako lantaldeak eta zerbitzuaren hornitzaileak ahaleginak egin zituzten konponbidea jartzeko argitaratzeko zeuden ebazpenen zamak eragiten zituen onepen-arazoei.

Nafarroako Foru Auzitegi Ekonomiko-administratiboaren ebazpen-proposamenetako soilik batzuk argitaratzea –eta behin Nafarroako Gobernuak berretsi ondoren– babesten duen lege-oinarria Tributuak buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko 92.2 artikuluan ezarrita dago. Izan ere, horren arabera, departamentuko titularrak “aldi-aldi emanen ditu argitara, kasu bakoitzean egoki juzkatzen diren prozeduren bidez, kontsulteren erantzunak eta garrantziak eta eragin handieneko ebazpen ekonomikoak eta administratiboak”.

Horrenbestez, kontua da Nafarroako gizartearentzat egiazko garrantzia eta ondorioak dauzkaten ebazpen ekonomiko-administratiboak argitaratzeko lege agindua betetzea; izan ere, halakoak izanen dira zergadun gehienek ezagutzea garrantzitsua den irizpideak ezartzen dituztenak, eta alde batera utziko dira, berriz, beren berezitasuna dela-eta gainerako tributudunei zabaltzerik ez dagoen doktrina bat daukatenak. Lege aurreikuspen horretan oinarrituta, erabakiak ez argitaratzea, gainera, aurkeztutako erreklamazioak, garaiz kanpokoak izateagatik, onartzen ez

dituzten ebazpenak, interesdunak hasierako erreklamazioari uko egin izana berrestekoak, deborarekin xedea desagertzearen ondorioz prozedura amaituztat deklaratu dutenak, aurreko beste batzuetan auzitegiak mantendutako eta Gobernuak berretsitako irizpideak bere osotasunean berretsi besterik egiten ez dutenak, eta abar.

Egia da 2013ko erdialdean proiektu berri bat hasi zela Auzitegiaren ebazpenak argitara emateko, eta duela bi hilabete inguru amaitu dela. Hori dela eta, zergei buruzko bilatzaileen orrialdean ikus daiteke Auzitegiaren ebazpenen bilaketa bi alditan zatikatuta dagoela: 2010era arte eta 2011tik aurrera. Gaur den egunean, konponbidea eman diegu jada arazo teknikoei; horrenbestez, espero izatekoa da argitaratutako ebazpenen kopurua nolabaiteko erregularitasunez gora egiten joatea. Berriki, 144 ebazpen kargatu dira, 2012. eta 2013. urtekoak. Lan horrekin, eskura dagoen informazioa gaurkotzeko eta ahal den guztian osatzeko lanak hasi dira. Hemendik gutxira amaituko direla espero da. Jasota utzi beharra dago argitaratutako ebazpen horiek Departamentuko langileen barneko kontsultarako jada kargatuta dauden berak direla, eta barneko kontsultarako ebazpenak kargatzen doazen neurrian argitara ematen joanen direla, interneteko bilatzailean jotzen duen edozeinek kontsultatu ahal ditzan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betez.

Iruñean, 2016ko martxoaren 3an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria:  
Mikel Aranburu Urtasun

## **Galdera, jakitekoa Nafarroan bizi diren zenbat emakumek pairatu duten genitalen ebaketa eta zenbat neskatok daukaten arrisku hori.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Iñaki Iriarte López jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, jakitekoa Nafarroan bizi diren zenbat emakumek pairatu duten genitalen ebaketa eta zenbat neskatok daukaten arrisku hori. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 22ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Iñaki Iriarte López jaunak idatzizko galdera egin du genitalen ebaketako jarduketari buruz (9-16/PES-00022). Hauxe da horri buruz Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilariak ematen dion informazioa:

Argitaratutako albisteak dioen bezala, Médicos del Mundo GKEtik heldutako datuak dira, zeinak aldizka jasotzen baitira sexu osasunari eta emakumeen genitalen ebaketari buruzko tailerretan, bai eta emakumeen genitalen ebaketa egiten den Afrikako herrialdeetako zuzeneko harremanaren bitartez ere. Entitate horrek nazioko zein nazioarteko aitortpena jaso du emakumeen genitalen ebaketaren arloan egin duen lanarengatik, eta Nafarroan ere esparru horretarako erreferentea da.

Jokabide hori desagerrarazteko neurriei dagokienez, lehenbizi adierazi beharra dago "Emakumeen genitalen ebaketaren aurkako prebentzio eta jarduketarako Nafarroako protokoloan" jasota daudela. Protokolo hori egin dute emakumeen aurkako indarkeriaren arretarako eta prebentziorako koordinazioa gauzatzeko erakundeen arteko akordioan aritutako lantalde teknikoak osatzen dituzten pertsonak, eta Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordeak onetsi zuen 2013an.

Gainera, jada ezaguna den bezala, 14/2015 Foru Legea garatzeko ekintza plana egiten ari da, emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egiteko; bertan, emakumeen aurkako indarkeriaren agerkari desberdinak lantzen dira, eta berariaz jasotzen da emakumeen genitalen ebaketaren gaia. Ekintza plan hori legearen aplikaziorako berme gisa aurkezten da, eta aurreikusita dago bere edukian jasotzea emakumeen bizitzatik jokabide hori desagerrarazten lagunduko duten neurri eta ekintzak, horren barne direla prebentzioko, atzemateko, esku hartzeko eta profesionalen koordinaziorako eta prestakuntzarako neurriak, besteak beste.

Azkenik, eta estatistika ofizialei dagokienez, bakarra ere ez dago Mossos d'Escuadra erakundeak egiten duenaren parekorik. Bere garaian, eta emakumeen genitalen ebaketari buruzko protokoloa egin eta argitaratu ondoren, Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordean erabaki zen oinarritzko osasun laguntzan jasotako kodeen artean berariazko kode bat sartzeari, kontsultan atzemandako kasuak sartzeko, Osasun Departamentuak konpromiso publiko bat hartuta. Konpromiso horri buruzko daturik ez dugu. Gaur egun, Osasun Departamentuak arrisku-faktore hori barneratu du haur osasuneko protokolo informatizatu berrietan. Protokolo horiek, izan ere, pediatriako profesionalek berriki argitaratu dituzte Atenean, eta oraindik ere informazio gutxi dago. Hala eta guztiz ere, informazio hori urtero sartzeko da emakumeen aurkako indarkeria dela eta egiten den jarraipen-txostenean. Gainera, neurri hori 14/2015 Foru Legeko emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako ekintza plan orokorretik heldutako plan sektorialetan sartuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Herritarrekiko eta Erakundeekiko Harremanetarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

## **Galdera, Noingo San Miguel IPko D ereduko irakasle eta guraso batzuek bereizi eta eskola berri bat sortzeko eginiko eskariari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Noingo San Miguel IPko D ereduko irakasle eta guraso batzuek bereizi eta eskola berri bat sortzeko eginiko eskariari buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 22ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 14an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu-taldeak 9-16/PES-00023 galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Irakasleen ehuneko 100ek eta gurasoen % 85ek D ereduko eskola berri bat sortzeari buruz egindako eskaera dela eta, Hezkuntza Departamentuaren asmoa da eskaera egin duten pertsonen eskatutakoa xeheki aztertzea. Halaber, zuzendaritza-taldearen, irakasleen klaustroaren, eskola-kontseiluaren eta ikastetxeko ikasleen gurasoen iritzia ezagutu beharra dago.

Agerikoa da elkarren arteko ezinegon bat dagoela ikastetxeko hezkuntza komunitateko sektore desberdinen artean, eta hori gertatzen da gai batzuen inguruko akordiorik ez dagoelako. Horrenbestez, arestian aipatu dugun azterketan desadostasunaren arrazoiak sartu behar ditugu, elkarren artean bereizita dauden hezkuntza komunitateko sektoreen jarrerak batzuk bestengana hurbiltzeko.

Asmoa da goitik behera ezagutzea egun dagoen egoeraren xehetasun guztiak: lehenbizi hezkuntzako sektore guztien arteko topaguneak aurkitzeko; bigarrenik, planteatutako arazoei kon-

ponbidea emateko balizko aukera guztiak ezagutzeko; eta, hirugarrenik, hezkuntza komunitateko pertsona gehienak asebeteko duen aukera bat adostu ahal izateko.

D ereduko gurasoen egindako eskaerari, "Noingo San Miguel HLHIPan D-PAI ereduko eskola berri bat sortzeko behar diren izapideak egitekoari" dagokionez:

2016ko urtarrilaren 28an Noingo San Miguel Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Eskola Kontseiluan D ereduko gurasoen eta irakasleen eskaera bat aurkeztu zen, non "laguntza eskatzen baitzen "Noingo San Miguel HLHIPan D-PAI ereduko eskola berri bat sortzeko behar diren izapideei hasiera emateko". Eskaera D-PAI ereduko 20 irakasle eta haur hezkuntzako 1. mailatik hasi eta lehen hezkuntzako 5. mailara arteko taldeetako hainbat gurasok sinatuta zegoen; izan ere, gaur egun San Miguelen D eredua eskaintzen deneko taldeak dira horiek. Sinatzaileak ikasgela horietako familien % 90 baino gehiago dira; guztira, 80 familia inguru. Irakasleen kopuruari dagokionez, D ereduko irakasleen % 80 baino gehiago dira. Guztira, 130 sinadura aurkeztu ziren. Ikastetxeko guztizkoa hartuta, 530 familiatik 81 dokumentuaren alde daude: % 15 inguru dira.

D ereduko gurasoen eta irakasleek egindako eskaera urtarrilaren 29an jakinarazi zitzaizen telefonoz ikuskapen zerbitzuei. Gainera, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuko erregistroan aurkeztu zen.

Bai San Miguel ikastetxeko zuzendari Juan Carlos Turumbay jaunak, bai ikasketa-buru Marisa Sorbet Sánchez andreak baieztatu zuten urtarrilaren 28a baino lehen ez zela eskaera edo iruzkinik batere aurkeztua D-PAI ereduko eskola berri bat sortzeko. D ereduko gurasoen eta irakasleek eskola berri bat sortzeko egindako eskaerak zortzi gai zehatz biltzen zituen, eta gai horiei erantzun zitzaizkien:

D-PAI PROGRAMAKO FAMILIA ETA IRAKASLEEN ESKARIAK	ZUZENDARITZA TALDEAREN BALORAZIOAK
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskola-komunitateko kide guztien inplikazioa bultzatuko duen eskola publiko bat.</li> </ul>	Ados gaude.
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskola euskaldun bat, gure kultura sustatuko duena.</li> </ul>	Ados gaude, eta gehitzen dugu ikastetxean lantzen diren komunikazio-hizkuntza guztien kultura ere sustatu behar duela.
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskualdeko eskola bat, gure herrian integratua.</li> </ul>	Ados gaude.
<ul style="list-style-type: none"> <li>Eskola eleanitz bat, euskarazko egiazko murgiltzea bermatzen duen hezkuntza-sistema batean oinarritua, kalitatezko ingelesarekin.</li> </ul>	Ados gaude, eta gehitzen dugu egiazko murgiltzea bermatu behar duela, komunikazio-erreferenteari begiratuta, ikastetxean lantzen diren komunikazio-hizkuntza guztietan.
<ul style="list-style-type: none"> <li>Irakaskuntza eredu berekia.</li> </ul>	Ados gaude, eta horixe ari gara aurrera eramaten gure hezkuntza-proiektuari jarraituz.
<ul style="list-style-type: none"> <li>Baliabide pedagogiko berritzaileak eta prestakuntza etengabea ari diren irakasleak dauzkan eskola bat.</li> </ul>	Ados gaude.
<ul style="list-style-type: none"> <li>Hezkuntza integrala bermatzen duen eskola bat, ikasleen erritmo, interes, baldintza eta izaera desberdinak errespetatzen dituen.</li> </ul>	Ados gaude; izan ere, irakaskuntzak banakakoa izan behar du.
<ul style="list-style-type: none"> <li>Bi eskolen artean bizikidetasun egokia mantentzeko konpromisoa.</li> </ul>	Bi eskola baldin badaude, ados gaude bizikidetasun egokia izatearekin.

Gainera, San Miguelgo (Noain) zuzendaritza taldeak ikuskapen zerbitzuei D ereduko gurasoen eta irakasleen eskaeraren berri eman zien, adierazgarriak iruditzen bazitzaizkien ere.

D-PAI ereduko gurasoek zuzendaritza-taldeari 2015eko ekainean aurkeztutako dokumentua, non eskari batzuk eta zuzendaritza-taldeak haiei emandako erantzuna agertzen baitira:

Haurrek elkarrekin euskaraz bizitzeko aukera izanen duten ingurunea: korridorea, patioa, jantokia, txangoak, ikasgela (ereduak nahastuta daude).	Elkarrekin euskaraz bizi daitezke eta bizi behar dute, zeren eta euskara gure proiektuko komunikazio-hizkuntzetako bat baita. Elkarren ondoan dauden D-PAI ereduiko ikasgelak badaude. Jantokian euskaraz hitz egiten duten begiraleak badaude. Komunikaziorako erreferentetzat euskara duten irakasleek euskaraz hitz egiten dute ikasleekin uneoro, egoera guztietan eta toki guztietan. Ahaleginak egiten ditugu euskarazko jarduera osagarriak egon daitezen; ahaleginak egiten ditugu A-PAI ereduiko ikasleekin joan daitezen, horiek ere euskara komunikazio-hizkuntzat baitute.
PAI-D eredu lan egiten duten irakasleen hizkuntza-eskakizuna (guztiak euskaldunak izan beharko lukete).	Eredu horretan lan egiten duten irakasle guztiak euskaldunak dira.
Gaztelania: lehen hezkuntzako 3. mailan sartzea, Iruñerriko gainerako PAI-D ereduetan egiten den bezala.	Gure hizkuntza-proiektuan, gaztelania, komunikazio-hizkuntzetako bat denez, haur hezkuntzako 1. mailatik lehen hezkuntzako 6. mailara arte lantzen da. D-PAI eredu astean hiru saio dira.
Haurren beharrian emozionalak. Ikasgela berean irakasle ugari (9 ikasle bitarte 3 urtekoen gelan).	Kasu jakin batean gertatu zen haur hezkuntzako 1. mailako tutoretzaz arduratu behar zuen irakasleak, semea gela horretan zeukanez, eskatu zuela tutorea ez izatea, eta zuzendaritza-taldeak ontzat eman zuen hori. Haren tokia eginkizun berezietan eta lanaldi murriztuarekin zegoen irakasle batek hartu zuen, eta beste irakasle batekin osatu behar izan zen hori, baina azken horrek askotan huts egin behar izan zuen gela horretan, bere alaba batek zeukan gaixotasun larria zela eta.

Bere garaian gurasoei emandako erantzunak gehiago zabalduz, zuzendaritza-taldeak dio modua legokeela D ereduiko ikasleak ikastetxean elkartzeko aukera aztertzeko. Hala eta guztiz ere, aukera horrek espazio-muga batzuk badauzka:

-Haur hezkuntzako gelategia, berriki eraikia, ikastetxeko eremu jakin batean dago, eta komunak bi gelatik bi gelara daude.

-Lehen Hezkuntzako gela batzuek (3. mailatik aurrera) pantaila interaktiboak dauzkate; beste batzuek, berriz, ez. Balizko kokapen berriak berarekin ekar dezake pantailak aldatu behar izatea, bai eta beste baliabide batzuk behar izatea ere, eta horrek nolabaiteko kostu ekonomikoa dauka.

Otsailaren 2an, San Miguelgo zuzendaritza-taldeak idatz-ohar bat bidali zion eskola komunitari, non guztiz jaso baitzuen D-PAI ereduiko familien eta irakasleen talde batek eskola berri bat sortzeko egindako eskaria. Albistea biharamunean argitaratu zen hedabide batean.

Otsailaren 2an, D-PAI ereduiko familien batek eta irakasleen talde batek bilera bat eskatu zuten San Miguelgo zuzendaritza-taldearekin, D-PAI eredu eskola berri bat sortzeko egiten ari diren izapideen berri emateko, gardenak izate aldera. Zuzendaritza-taldearen arabera, bileran ez zuten zehaztu norekin bilduak ziren edo norekin bilduko ziren, ezta noiz ere.

Noainen D-PAI ereduiko ikastetxe berri bat sortzeko eztabaida bertako udalaren otsailaren 9ko osoko bilkuran ere aztertu zen. Arestian aipatu dugun "Noaingo San Miguel HLHIPan D-PAI eredu eskola berri bat sortzeko behar diren izapideak" egitearen aldeko dokumentua eta 130 sinadurak aurkeztu ziren. Udaleko talde politiko batek osoko bilkuraren babesa nahi zuen D eredu eskatzaileentzat, baina, azkenik, mozioa erretiratu zuen bera bozkatu baino lehen.

Udaleko osoko bilkuran iruzkin batzuk egin ziren –prentsan jasota daude– D-PAI ereduiko irakasleen ezagutza maila txikiei buruz. Bada, horiei dagokienez, komeni da buruan edukitzea hauxe

lehenengo urtea dela D ereduiko ikasleek Nafarroako Gobernuak kanpoko zentsu-probak egiten dituztena. Horrenbestez, ezin dugu emaitzei buruzko azterlan ebolutibo bat egin, orain arte ezin izan baita ebaluaziorik egin, eredu ezartzen ari zelako. Une honetan, lehen hezkuntzako 5. mailara iristen da. Honako hauek dira San Miguel ikastetxeko 2014-15 ikasturteko D ereduiko 3. mailako ikasleen kanpoko ebaluazioen emaitza akademikoak:

	2014-15
Hizkuntza-gaitasuna: Testuak euskaraz	525 (+38)
Irakurmena euskaraz	504 (+16)
Ingeles-gaitasuna: Ahozkoa	
Irakurmena/testuak	526 (+40)
Matematika-gaitasuna	487 (+19)

Datu hauek interpretatzeko, honako hau hartu beharra dago kontuan:

– Lortutako batez bestekoa Nafarroakoa (500) baino altuagoa da, matematika-gaitasunean izan ezik.

– Nabarmentzekoa da emaitzak positiboak direla, estatus ekonomiko, sozial eta kulturalaren adierazleari dagokionez (parentesi arteko datuak), eta, horrenbestez, zabal gainditzen dituztela aztertutako gaitasun guztietan espero ziren emaitzak, baita matematikan ere.

Otsailaren 12an, San Miguel ikastetxe publikoko ama batek, Marina Aldaba Beguristáin andreak, ikuskapen zerbitzuetara jo zuen eta dokumentu bat aurkeztu zuen, zeinerako sinadurak biltzen ari baitzen. Dokumentu horretan aipatzen da bizikidetasuna sustatzeko beharra, eta ikastetxeko arazoei guztien artean aurre egin behar zaiela. Otsailaren 18an, txostena ikuskapen zerbitzura bidali zen, hura babestu zuten San Miguel ikastetxeko 451 gurasoren sinadurarekin.

2016ko otsailaren 25ean, Noingo San Miguel Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxeko Eskola Kontseiluan aurkeztu zen, 451 gurasok sinatua, honako izenaren pean: "Ikastetxeko D ereduiko guraso gehienek eta irakasleen eskaeraren aurreko erreakzioa eta Noingo San Miguel Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoko eskola komunitatea batzearen alde lan egiteko eskaera..." dokumentu horretan puntuz puntu erantzuten zaio D ereduiko gurasoek eta irakasleek urtariraren 28an egindako eskariari, eta "laguntza eskatzen da Hezkuntza Departamentuari behar diren laguntza, denbora eta lankidetzak eskatzeko ikastetxe batuari eutsi ahal izateko, baterako helburu parte-

katuen alde lan eginez; besteak beste, Nafarroako hezkuntza publiko euskaldunaren kalitatea." Idazki honi familien % 60k eman zien babesa: 530 familietatik 321ek.

Eskola Kontseiluak, 2016eko otsailaren 25ean egindako bilkuran, aho batez erabaki zuen, zuzendaritza-taldeak proposatuta, irakasleen batzorde bat sortzea, hiru ereduak (G, A eta D) ordezkariekin, ikastetxean lanerako giroa eta bizikidetasuna errazteko neurriak elkarrekin adosteko. Otsailaren 2an, batzorde horren lehenengo bilera izan zen.

D-PAI ereduiko gurasoen eta irakasleen taldeak aurkeztutako proposamena aurrera eramateko behar diren espazioak aztertu ziren, bai eta Noinek derrigorrezko irakaskuntzak emateko dauzkan espazioen egoera orokorra ere:

D-PAI ereduiko gurasoen eta irakasleen taldeak aurkeztutako proposamena aurrera eramateko behar diren espazioei dagokienez, esan beharra dago hori ezinbestez lotu beharra dagoela Noinek derrigorrezko irakaskuntzak emateko dauzkan espazioen egoera orokorrarekin. Gaur egun Noinen (San Miguelen haur eta lehen hezkuntzarako eta Elortzibarren DBHrako) derrigorrezko irakaskuntzetan matrikulatuta dauden ikasleei dagokienez eta datozen ikasturteetarako espero daitekeen eskariari dagokienez, 16 urtera bitarteko eredu guztien eskariari erantzunez gero, honakoa esan dezakegu:

Datorren ikasturtean, 2016-17koan, aurreikusiten da San Miguel Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak eta DBHlako ikasle guztiak hartu ahal izanen dituela.

2017-18 ikasturtean, arazoren bat aurreikus daiteke San Miguel ikastetxeko espazioetan (gela bat/bi gela), baldin eta azken hiru ikasturteetako matrikula-mailei eusten bazaie; halere, duela zenbait urtetatik herrian ez da etxebizitza berri askorik entregatu. DBHlan, espazio-arazoren bat (ikasgela bat) egon daiteke D ereduiko ikasleak integraztearen ondorioz.

2019-19 ikasturtean aurreikusiten da San Miguelen espazio-arazoak handituko direla, baina hori, betiere, matrikulazioen arabera izanen da. Elortzibar DBHlan ikasgelen falta handiagoa aurreikusiten da.

2019-20 ikasturtean, aurreikusita dago San Miguelgo ikastetxean espazioak faltatzea (3 eta 6 ikasgela bitarte, guztira). DBHlan ere espazioak faltako dira: guztira, 6 ikasgela bitarte falta litezke, guztira.



Noaingo eta eskualdeko ikastetxe publikoen (derrigorrezko irakaskuntzak) espazio arazoetarako konponbideak askotarikoak izan daitezke: Hala eta guztiz ere:

a) Hezkuntza sistemaren plangintza orokorren esparruan aztertu behar da hori.

b) Ikastetxeak zabaltzeko edo/eta hobetzeko guztira behar diren inbertsioen baitan aztertu beharrekoa da.

c) Beste gai bat ere badago, une honetan Noainen eragin sozial handia duena: hizkuntza ereduak bereizi behar diren ala ez.

Departamentuak askotariko konponbideak bila ditzake, baina haietan sakondu beharra dago, hezkuntzaren arloko plangintzak eskatzen duen ikuspegi sistemikotik:

1. 3-16 urteko ikasleentzako D ereduko ikastetxe bat sortzea.

Honako hauek hartu behar dira kontuan: epe luzera DBHko ikasleen kopurua txikia izatea (esate baterako, hiru urteko 16 ikasle daude une honetan; lerro bakarra egonen litzateke); gaztelaniazko ikasleak (Noain, Beriain eta Elokoak) ez lirateke sartuko Elortzibar DBHlan; kostu ekonomikoa; aintzat ez hartzea 451 gurasok eskatutakoa, ereduak elkarrekin jarraitzearen alde egin baitute; D ereduko guraso eta irakasleen eskaria aintzat hartuko litzateke, 130 sinadurarekin ereduak bereiztearen alde egin baitute; Noaingo Udalarekin akordio batera iritsi beharko litzateke lursailak lagatzeko eta gero ikastetxearen mantentzeaz ardura dadin...

2. DBHI berri bat sortzea (lau/bost lerrotakoa), non eredu guztiak batera bilduko diren, eta D ereduko haur eta lehen hezkuntzako ikasleak egungo DBHlan egotea (Noaingo antzinako eskola da, udalaren titularitatekoa).

Kontuan hartu beharrekoak: espazio arazoak epe luzera konpontzen ditu; ereduak haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzan bereizita egonen lirateke, baina ez DBHn; kostu ekonomikoa; Noaingo Udalarekin akordio batera iritsi behar izatea lursailak, zamarik gabe, lagatzeko.

3. San Miguelgo eta Elortzibarko DBHIko instalazioak zabaltzea.

Kontuan hartu beharrekoak: ereduak ez dira bereizten ez haur eta lehen hezkuntzan, ez DBHn; kostu ekonomikoa; bideragarritasun arkitektonikoa, bereziki DBHlaren kasuan.

4. Beriaingo ikasleak 12 urtetatik aurrera Noaingoaz beste institutu batera eramatea.

Kontuan hartu beharrekoak: aztertu behar da instituturen batean tokirik dagoen, bereziki Plaza de la Cruz institutuan, edo/eta dauden institutuak egokitu behar dira (sei ikasgela inguru gehiago); ereduak ez lirateke bereiziko ez haur eta lehen hezkuntzan, ez DBHn ere; litekeena da Noaingo ikasleek (A-G eta D ereduak) DBHlan espazio arazoak izatea.

Azkenik, San Miguelgo D eta A-G ereduetako ikasleak (ingelesaz ikasteko programakoak izan ala ez) ikastetxe desberdinetan bereizteko aukerari dagokionez:

Egiazki ez dago denborarik ikastetxe berria egiteko, gutxienez ere datozen bi urteetan. Horrenbestez, bereizte hori ezin izanen litzateke eraikin desberdinetan egin.

Baldin eta eraikin berean beste zuzendaritza bat sortzea erabakiko balitz, argi eduki behar dugu San Miguel ikastetxeko egungo eraikinean ez dagoela espazio-aukerarik zuzendaritzarako eta ikasketen burutzarako bulegoak egiteko, beste jantoki bat edukitzeko, irakasleentzako beste areto bat edukitzeko, beste liburutegi bat izateko, eta abarretarako. Aipatu dugun bezala, litekeena da 2017-18 ikasturtean espazio arazoak izatea.

Neurri batzuk har litezke bizikidetasuna erraztuko luketenak; esate baterako D ereduko ikasleak eraikineko hegal batean jartzea; halere horrek ondorio batzuk izanen lituzke:

Egiten zaila da, haur hezkuntzarako ikasgelak espezializatuta daudelako eta lehen hezkuntzako komunak partekatu beharko liratekeelako. Agian, errazagoa izanen litzateke alde batetik D ereduko haur hezkuntzako ikasleak biltzea eta bestetik D ereduko lehen hezkuntzakoak.

3. mailatik aurrerako ikasgelek pantaila interaktiboak dauzkate, eta haiek tokiz aldatzeak, kasua balitz, kostu handia izanen luke.

Ikastetxeko erabilera komuneko espazio bazuetan akordio bazueta hel liteke, D ereduko ikasleek jarduerak euskaraz egin ahal izatea errazte aldera, logikoak diren espazio-mugekin.

Halaber, horretarako sortu den batzordean, Eskola Kontseiluaren babesarekin, gaur egun aztertzen ari diren beste neurri batzuk har litezke. Haien berri eman dugu jada.

Iruñean, 2016ko martxoaren 11n

Hezkuntzako kontseilaria: José Luis Mendoza Peña

## **Galdera, lankidetzarako esparru-hitzarmen bat betetze aldera Banco de Santander SArekin sinatutako lankidetz hitzarmen berariazkoei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, lankidetzarako esparru-hitzarmen bat betetze aldera Banco de Santander SArekin sinatutako lankidetz hitzarmen berariazkoei buruzkoa. Galdera argitaratu zen 2016ko otsailaren 22ko 22. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2016ko martxoaren 10ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatzizko galdera egin du "Banco Santander SArekiko berariazko lankidetz hitzarmenari" buruzko informazioa eskatzeko (9-16-PES-00024). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

1. Osasun Departamentuak, 2012ko ekainaren 29an, berariazko lankidetz hitzarmen bat sinatu zuen, Nafarroako Foru Komunitatearen eta Banco Santander SArekin artekoa, Profesionalarentzako Txartel Adimentsua eman eta ezartzeko.

2. Aipatutako hitzarmena Osasuneko kontseilari Marta Vera Janínek, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaile Ángel Sanz Vareak eta Banco Santander SAko zuzendari nagusi Enrique García Candelasek sinatu zuten.

Hitzarmenaren xedea zen "Nafarroako Ospitalegunean eta Jarraipen Batzordeak unean-unean erabakitzen dituen Nafarroako ospitale publikoetan profesionalarentzako txartel adimentsua (PTA) eman eta ezartzeko baldintzak sortzea".

PTA ezartzeko betebeharrak, hitzarmenean Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuentzat ezarritakoa, honako hauek dira:

1.- Bankuak diseinatutako txartel-formatua oinarri hartuta eta ezarritako mugak kontuan hartuta, erraztasunak ematea PTAen formatuan beharrezkotzat jotzen diren elementu edo/eta logoak jartzeko, bai eta koloretako kodeen "pantoneak" ere.

2.- PTAk jaso beharreko teknologiak identifikatzea: hurbiltasuneko txipa; memoria txipa; banda magnetikoa; barra-kodea.

3.- PTAk profesionalen sektore bakoitzerako eduki beharreko funtzionaltasunak identifikatzea.

4.- PTAk sinadura elektronikorako jaso beharreko ziurtagiria edo ziurtagiriak zehaztea.

5.- PTAetan jaso beharreko datu pertsonalak eta datu profesionalak ematea, bai eta argazkiak berak ere.

6.- Txartel pilotuak kudeatzeko prozedura logistikoa eta operatiboa finkatzea.

7.- PTAk gutun bidez profesionali aurkeztu eta bidaltzeko eredia finkatzea.

8.- Laguntza ematea ospitale bakoitzean PTAk dituen funtzioak behar bezala garatu ahal izateko sistema informatikoa eta irakurketa-gailuak eskura egon daitezen.

Betebehar horiek ez dute gasturik, eragin ekonomikorik ez dutelako.

Indarraldiari dagokionez, honako hau dio hitzarmenak berak: "Dokumentu honek eraginak izanen ditu sinatzen den unetik eta beraren arrazoiz den lankidetzarako esparru-hitzarmenak daukan indarraldi bera izanen du; hala eta guztiz ere, aldeek adostu dute horietako edozeinek eska dezakeela hitzarmena deuseztatzea, beste aldeari erabakiaren data baino 90 egun lehenagotik, guxtienez, ohartarazita."

Aipatutako indarraldi-klausulak aipatzen duen lankidetzarako esparru-hitzarmenak honako hau jasotzen du: "Lankidetzarako esparru-hitzarmen honek eraginak izanen ditu sinatzen den unetik eta hamar urteko indarraldia izanen du; indarraldi hori gero bi urtez behin luzatu ahalko da, betiere aldeetako batek muga-eguna baino hiru hilabete lehenago hura amaiazteko eskatzen ez badu."

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikulua betetz.

Iruñean, 2016ko martxoaren 8an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Dominguez Cunchillos



